




"Berbak ipintzerakoan liberazio pertsonal bat sortzen da, eta horrek ahalduntzen laguntzen du"

Abadiño | Ekintza artistiko baten bitartez, etorkizunerako memoria eraiki gura dute Abadiñon. Emakumeen testigantzak batu eta denboraren kapsula batean lurperatuko dituzte. Antolatzaileek ahalduntze ariketa izatea gura dute. Proiektuaren aurkezpena azaroaren 19an egingo dute, Errotan. • 18



Kargupean aske utzi dute sexu erasoa egitea egotzita atxilotutako gaztea

Durango | Gaztea epailearen aurretik pasatu da eta behin-behinean aske utzi dute, kargupean. Durangoko Udalak eta mugimendu feministak gogor gaitzetsi dute erasoa. Gazteak 24 urte ditu. • 12. orrialdea

CERAMICAS
MACOBER



ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 - www.macober.com



LEHIOR ELORRIAGA

Ander Garmendia Larrea
Durangoko Kulturalako jokalaria ohia
Otxandio | 1984

Ricardo Txintxurreta Duñabeitia
Kulturalako jokalaria eta entrenatzaile ohia
Durango | 1959

Adrian Abasolo Amantegi
Durangoko Kulturalako jokalaria
Mañaria | 1987

“Mendurrenena heltzea belaunaldien arteko ahalegin kolektibo baten emaitza da”

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturala sortu zeneko mendurrenena ospatzen dabil aurten. Historia luze horretan hiru bider egon da Bigarren B Mailan. 1986-1987 denboraldian igo zen lehenengoz, eta talde hartan Ricardo Txintxurreta ibili zen. 2005-2006 denboraldiko igoera ere bizi izan zuen, baina orduan entrenatzaile lez, Ander Garmendia kapitain zuen taldean. Hurrengo urtean, Adrian Abasolok debutatu zuen Kulturalagaz, Bigarren B Mailan, eta 2017-2018 denboraldiko igoerako protagonistariko bat izan zen. Klubaren historiako kapitularik garrantzitsuenetako protagonistak dira.

Ricardo, zelan gogoratzen duzu orain 32 urte lortutako igoera?

Ricardo Txintxurreta: Aspaldiko kontuak! Talde indartsua eduki genuela eta dinamika on batean sartuta geundela gogoratzen dut. Merezita igo ginen.

Sendotasunean oinarritu zenuten igoera. 38 partidutik 19 berdindu zenituzten, eta hiru porrot baino ez.

R.T.: Jose Mari Arrizabalaga zen gure entrenatzailea eta taldea fisikoki ondo prestatzea gustatzen zitzaion. Lan fisiko izugarria egiten genuen. Beti korrika!

Klubaren historiarako geratuko da Bigarren B Mailarako igoera hori, lehenengoa izan zelako.

R.T.: Horrela da, bai. Gainera, orduan jende asko joaten zen gu ikustera. Etxeko partiduetan mila lagun inguru batzen ziren eta izugarriko giroa egoten zen. Eibarren kontrako partiduren batean hiru bat mila ere batu ziren Tabiran. Beste sasoi bat zen, eta ez zegoen gaur egun dagoen kirol eskaintza anitza.

Ander eta Adrian, entzun izan duzue istoriorik igoera hari buruz?

Ander Garmendia: Igoerari buruz baino gehiago, sasoi hartako futbolaren inguruko istorioak entzun izan ditut, Txintxurretak eta Fernando Bilbao klubeko presidente izandakoak kontatuta: futbol zelai

“

Ricardo Txintxurreta:
“2006an beste talde batzuk ziren faborito, eta inork ez zuen uste igoko ginenik”

asko hareazkoak zirela, kolpe bat hartzen bagenuen hori ez zela ezer euren sasoiaren hartzen zirenekin alderatuta, eta antzerakoak.

Ricardo, igo bakarrik ez, lau urtean mantendu zineten bertan.

R.T.: Urte dezente dira. Kontuan hartu behar da zer talderen kontra jokatu behar genuen. Askok hiriburuetako taldeak ziren gero! Huesca,

Zaragoza, Teruel... Andorran ere jokatzeko guregen. Gogoan dut Gali-ziara joaten ginenean, sarritan, zapatuan irten eta astelehen goizean itzultzen ginela. Eta itzuli bezain laster, lanera!

Ander eta Ricardo, zelan bizi izan zenuten 2006ko igoera?

A.G.: Igoera fasea dut akorduan, kurioso izan zelako. Valle de Eguesen kontra hemen irabazi eta han berdindu egin genuen. Beraz, gu aurrera. Teorian, beste kanporaketa bat gainditu behar genuen mailaz igotzeko. Valle de Eguesetik bueltan etxera gentozela, Bigarren B Mailako Zaragoza B igoera fase-tik kanporatu zuten. Horrek esan gura zuen Hirugarren Mailan gure aurkaria izan behar zen Zaragoza C igotzeko aukerarik barik geratu zela. Autobusean enteratu ginen Bigarren B Mailara igo ginela.

R.T.: Talde ona geneukan, baina beste talde batzuk ziren faborito eta inork ere ez zuen uste igoko ginenik. Ni urte hartan sartu nintzen entrenatzaile. Aurreko urtean Berrizen egon nintzen. Ohorezko Mailara igo ginen eta talde hartako lau-bost jokalaria eraman nituen Kulturalera. Talde moduan sendotzea falta zitzaigula esan gura dut. Baina jokalarien artean sekulako giroa sortu zen, oso talde batua sortu genuen eta horixe izan zen igoeraren gakoa.

A.G.: Gainera, ez zen igoera hori bakarrik izan. Bi urtez segidan mailaz igotzea lortu genuen: Oho-rezko Mailatik Bigarren B Mailara. Sasoi hartan Kulturalak talde onak izan zituen. Baina urte oso txar

A.G.: Futboleko geroago eta garrantzi handiagoa du aldagela ondo eramaten jakiteak. Entrenatzaileak psikologo lana ere egin behar du. Txintxurretak lan hori oso ondo egiten zuela uste dut.

Beraz, Ricardo, psikologo lana egitea egokitzen zitzaizun.

R.T.: Entrenatzaile batek derrigor egin behar du lan hori. Jokatzeko duen jokalaria pozik dago beti, eta jokatzeko ez duena ez hainbeste. Baina entrenatzaile batek talde osoa ehuneko egunean behar du, jokalaria guztiak, eta hori bilatu behar du. Lan zaila da, baina ondo kudeatu genduela uste dut. Talde jatorra eta langilea izan nuen.

Hurrengo urtean, taldea Bigarren B Mailan zebilela, gazte mailako jokalaririk batek nagusiekin debutatu zuen: Adrian Abasolo zuen izena.

Adrian Abasolo: Halaxe da. Gogoan dut nire debut eguna. Negua zen eta hotz galanta egiten zuen. Burgosen jokatu genuen. Banekien oraindino entrenatzaileak jokalaririk bat deialditi kanpora utzi behar zuela. Gazte mailakoa nintzen, niri egokituko zitzaidalda uste nuen, baina ez, taldean sartu ninduen. Eta partidua hartan orduerdi inguru jokatu nuen. Imaginatu, gazte mailako jokalaririk bat milaka lagun sartzen diren futbol zelai batean debutatzen. Oso polita izan zen.

Bigarren B Mailako ametsak urtebete iraun zuen.

A.G.: Inork ez zuen gugatik ezer ematen, baina azken txanpara aukerakin heldu ginen. Azken hiru partiduetatik bat irabazita, mailari eusteko fasean sartuko ginen. Lehengo ga, bigarrena berdindu eta Alaves B-ren kontrako azkenera

irabazi beharraz heldu ginen. Eurak jaitzita zeuden, aukerarik barrik. 2-1 irabazten joan ginen, baina azkenean 2-3 galdu genuen.

Adrian, hainbaten zeu izango zara etapa desberdin bitan Bigarren B Mailan jokatu duen klubeko jokalaririk bakarrik. Historiarako datua da.

A.A.: Bai, halaxe da, zahartzen nabilela konturatzen naiz (barreak). Baina, bai, oso polita da.

2017-2018 denboraldian lortutako igoeraren zer gomuta duzu?

A.A.: Igotzeko faboritoak ginen eta oso talde ona geneukan. Igoera fasean, Conquenseren kontra, partidua bietan berdindu genuen: etxean bana eta kanpoan husna. Gogoan dut han aukera bat izan nuela eta baloia zutoinera joan zela. Sartu balitz partidua irabaziko genuen eta zuzenean igoko ginen. Baina ez zen sartu eta beste kanporaketa bi jokatu behar izan genituen. Handik astebetara, belaunetik lesionatu nintzen eta ezin izan nituen partidua horiek jokatu.

Denboran gura baino gehiago luzatu zen lesioa izan zen?

R.T.: Bai. Hurrengo denboraldian, Errege Kopako partidura arte ez nintzen itzuli. Urtebetean erreperatu ezinik ibili nintzen. Partidua batzuk jokatu eta gol bi sartu nituen, bai, baina ezin izan nuen Bigarren B Mailaz gura beste gozatu.

Zelan bizi duzue klubaren mendeurrena?

R.T.: Futbol klub bat mendeurrenara heltzea ez da nolana hiko lorpena. Urte askoan lan ona egin dela esan gura du. Mendeurrenara heltzea belaunaldien arteko ahalegin kolektibo baten emaitza da eta goaipatzeko modukoa.



Durangoko Kulturalako jokalaririk 1987ko igoera zaleekin ospatzen.



2006an pronostiko guztiak apurtuta lortu zuten Bigarren B mailara igotzea.



Orain urte bi klubaren historiako hirugarren igoera lortu zuten Bigarren B Mailara.

Durangoko hainbat musika elkarterek kontzertua antolatu dute Kulturalaren mendeurrena ospatzeko

Arandoñok, Jaizalek, Herri Maitek eta Durangoko orfeoiak kontzertua antolatu dute zapatarako; emanaldia 20:00etan hasiko da, Durangoko Andra Maria basilikan



Ezkerretik hasita, Javier Sagastizabal, Fernan Bilbao, Antonio Nuñez, Eleder Iturrieta eta Jon Andoni Bengoetxea.

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten Kulturalak 100 urte betetzen dituela-eta, eta taldeari omenaldia egiteko asmoz, Durangoko hainbat elkarte kulturalak kontzertu berezia antolatu dute zapatarako. Herri Maitek, Arandoñok, Jaizalek eta Durangoko Orfeoiak antolatu dute kontzertua, eta Durangoko 60 bat musikaririk parte hartuko dute. Kontzertua Andra Maria basilikan izango da.

"Iñaki Loinaz San Faustoko parrokoak Kulturalaren mendeurrena ospatzeko zerbait egin genezakeela esan zidan. Haria hartu nion eta hortik sortu dugu zapatuko ekimena", azaldu zuen Fernan Bilbao Kulturalako presidente ohiak martitzenean emandako prentsurrekoan. Kulturalako egungo presidentek, Jon Andoni Bengoetxeak, eskerrak eman zizkien inizatiba izan duten elkartei. "Harro gaude Durangoko elkarteek gure mendeurrena kontuan izan dutelako. Guretzat ohore bat da maitasunetik sortutako

jaialdi baten parte izatea. Durangarrei bertaratzeko deia egiten diegu", esan zuen presidentek.

Antonio Nuñez Herri Maiteko zuzendariak jakitera eman zuenez, Felix Arkarazok aurkeztuko du kontzertua, eta hainbat multzotan banatuta egongo da. Orfeoiak, Jaizalek eta Herri Maitek batera jotako abestiekin emango diote amaiera kontzertuari. "Du-

Domekan, 12:00etan, Kulturalako eta Athleticeko beteranoen partidua, Tabiran

rangotik eta durangarrentzat sortutako kontzertua izango da", esan zuen Nuñezek.

Bestalde, domekan, 12:00etan, Kulturalako beteranok Athleticeko beteranok aurkako partidua jokatu dutela Tabiran jakitera eman dute.

Uber plataforma Bilbon ipini dute martxan, eta Durangoko taxi gidariek kezka dute haren jarduna hona zabalduko ote den

"Joko bera karta-sorta desberdinekin ari gara jokatzin; baina nire seme-alaben jatekoa ez da joko bat", diote taxi gidariek

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko hainbat taxi gidari kezkatuta daude Uber plataformak Bilbon lur hartu duelako. Beldur dira, plataforma oraingoz eskualdera heldu ez den arren, noizbait ailegatu daitekeelako. 20 bat gidarigaz hasi du jarduna Uberrek Bilbon, baina litekeena da kopuru hori laster batean handitzea. "Hau hasiera baino ez da. Entzuten ari gara lasai egoteko, plataforma hauek ez dutela etorkizunik izango. Ni ez naiz iritzi berekoa. Bartzelona edo Madril hirien jabe egin direla ikusi dugu, eta mundu zabalean jarduten dute. Helburu argi batez datoz hona ere: merkatuaren jabe egitea", azaldu dio Durangon 14 urtez taxi gidari lanetan dabilen batek ANBOTOrri. "Oraingoz ez da hona ailegatu, baina beste toki batzuetara ailegatu bada, zergatik ez da hona ere helduko?", galdetu du.

Beste taxi gidari batek azaldu duenez, "lehia desleiala" egiten die Uberrek. "Nire lizentziak eta nire zergak ordaintzen ditut, eta

Uberrek ez du halakorik. Joko bera karta-sorta desberdinekin ari gara jokatzin. Eta gauza bat esango dizut: nire seme-alaben jatekoa ez da joko", dio. Etor litekeenaren ispilu modura AEBetan gertatutakoa azaldu dute. Uber prezio merkeak eskaintzen hasi zen hango hirietan, baina tarifak igo zituzten gerora. "Merkatuaren jabe egitea lortu eta gero, %64 igo dituzte prezioak", azaldu dute.

Gizartearen 'uberizazioa'

Funtsean, internet bidezko aplikazio bat da Uber, telefono mugikorretan erabilgarri dagoena. Bertan, bat egiten dute bezeroak eta langileak. Hau da, toki batetik beste batera mugitzeko zerbitzua eskatzen duen erabiltzaileak eta gidari lanak egiteko prest dagoen erabiltzaileak. Azken honek diru kantitate bat jasotzen du bezeroarengandik, taxien prezioa baino dezente baxuagoa, gehienetan. Taxi gidariei eragiteaz gainera, beste sektore batzuetan ere badaude.



Durangoko taxi gidarien artean kezka da nagusi.

"Gaur aplikazioen erabiltzaile izan zaitezke, baina baldintza horietan lan egin dezakezu bihar"

Airbnbn, JustEat, Glovo eta halako aplikazioek eragin zuzena dute turismoaren sektorean eta mezularitza zerbitzuetan.

Taxi gidarietako batek argi du jokoan dagoena ez dela taxietara mugatzen, eta joera honen ondorioak epe luzera etortzen direla. "Aplika-

zioekin berehalakotasuna ikusten dugu, zerbitzu merke bat. Baina lan prekarioak sortzen dituzte gerora. Erabiltzaile lez, kritiko izan behar dugu. Gaur aplikazioen erabiltzaile izan zaitezke, baina bihar baldintza horietan lan egin dezakezu. Hori gura dugu?" galdetu du.

Ur Partzuergoak berretsi du ez dela bera telefono bitartez datuak eskatzen dabilena

Durangoko hainbat herritarrek Ur Partzuergoaren izenean egindako telefono deiak eta aurrez aurreko bisitak jaso dituzte. Halakorik egiten dabilela gezurtatu du partzuergoak

DURANGO • J.D / E.H.

Dei horien bitartez, etxeko uraren kalitatearen inguruko datuak eskatu dizkiete Durangoko hainbat herritarri, baita datu pertsonal batzuk ere; adina, esaterako. Bizkaiko Ur Partzuergoak ohar batean informatu duenez, baina, eurek ez dute horrelako deirik egin. "Une honetan ez gabiltza Durango inguruan telefono-kanpainarik ez aurrez aurreko kanpainarik egiten", abisatu dute. Telefono zenbaki bat

eman dute, horrelako deiren bat jasoz gero eurekin hartu-emanetan ipintzeko eta edozein zalantza argitzeko: 94 487 31 87.

Enpresen izenean ere bai

Ur Partzuergoaren izenean egindako deiez gainera, enpresa batzuen izenean egindako beste hainbat dei ere egon dira. Herritar batek bere kasua kontatu dio ANBOTOrri. "Enpresa baten izenean deitu zidaten, uraren kalitatea neurtzen

zebiltzala esanez. Esan zidaten une hartan teknikari bat zebilela Durango aldetik, eta ea etxetik pasatu zitekeen. Gizon bat etorri zitzaidan etxera. Uraren kalitatea neurtzeko proba sinesgaitz batzuk erakutsi zizkidan. Ni eszeptiko nengoen eta ea zer gura zuen galdetu nion. 1.200 euro balio zuen filtro bat saldu gura izan zidan", azaldu du.

Orain urte batzuk, halako engainuz ohartarazi zuen poliziak.



Uneotan, Partzuergoak ez du telefono edo aurrez aurreko kanpainarik Durango aldean.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko azaroak 15a
18. urtea - 784. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Erabaki plataformak deitutako mobilizazio bateko argazkia.

Durangoko Udalak hile honetan erabakiko du zein izango den tren geltokiari buruzko galdera

Erabaki plataformak lau galdera proposamen erregistratu ditu udalean. Udalbatzak hile honetako osoko bilkuran erabakiko du zer galdetuko zaien herritarrei

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Tren geltoki zaharrari buruzko galdeketa forma eman, eta galdetu beharreak zorrozteko pausoa eman du Erabaki plataformak. Lau galdera proposamen idatzi, eta Durangoko Udalean erregistratu ditu. Galdeketa pilotan, horrenbestez, udalbatzaren teila-tu gainean dago orain. "Datorren astean udaletxean egingo den batzorde irekian aurkeztuko dira galdera horiek, eta hile amaierako osoko bilkuran zehaztuko da galdeketa behin betiko galdera", jakitera eman dute Erabaki plataformako kideek ohar batean. Udal

gobernu taldeak ere asmo eta epe berak berretsi ditu. Proposamenak datorren asteko batzordeetan aurkeztuko dizkie udalbatza osatzen duten alderdi politikoei. Hile honetan egingo den osoko bilkuran erabakiko da azkenik zein izango den herritarrei planteatuko zaien galdera.

Lau galdera proposamenak

Hauexek dira plataformak erregistratutako lau proposamenak: 1- Ados al zaude gaur egun onartuta dagoen proiektua (PERI 1 Ferrocarril) bertan behera uzteaz eta durangar ororen parte-hartzeaz eta Durangoren

beharrizanei erantzun dion proiektu bat egiteko prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzeaz?

2- Ados al zaude (PERI 1 Ferrocarril) proiektua bertan behera uzteaz eta prozesu parte-hartzaile bat izango duen alternatiba bideragarri baten azterketa martxan jartzearekin?

3 -Ados al zaude gaur egungo PERI 1 Ferrocarril proiektua bertan behera uzteko eta HAPO barruan, proiektu berri bat erabakiko duen prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzearekin? 4- Ados al zaude HAPO barruan, PERI 1 Ferrocarrilerako proiektu berri bat erabakiko duen prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzearekin?

Atera dute domekan Atxondon Zumelegi errekarra jausi zen autoa

Autoko gidariak ANBOTOrri adierazi dionez, "susto galanta" hartu zuen, baina "onik" dago

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Domeka goizean, BI-6336 errepide-tik zihoala, Volkswagen markako auto bat bidetik irten, bazter-babesa jo, eta Zumelegi errekarra jausi zen, Atxondon. Katalina izenez ezagutzen den bihurgunean jausi zen autoa errekarra, eta ur-korronteak 100 bat metro beherago eraman zuen. Istripuan ez zen inor zauritu, eta autoko gidariak bere kabuz lortu zuen auto barrutik irtetea. Auto gidariak ANBOTOrri adierazi dionez, "susto galanta" hartu zuen, baina "onik" dago.

Autoak egun bi egin zituen Zumelegi errekan, eta martitzenean lortu zuten garabi baten bitartez bertatik ateratzea.



Martitzenean atera zuten autoa errekatik.

Presoen senideei laguntzeko ekimen sorta, Otxandion

Bertso saioa eta musika kontzertuak izango dira

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Enrike Garate eta Iñaki Garces preso otxandiarren senideei euren asistentzia gastuetan laguntzeko, hainbat herritarren ekimenez Batu Elkartasunera eguna antolatu dute biharko. Eguerdian bazkaritara batuko dira Mainondoko kirolgunean, eta, ondoren, bertso saioa izango da Unai Iturrriaga, Oihane Perea, Igor Elortza eta Eneko Abasolo *Abarkas* bertso-

lariekin. Parte hartzeko txartelak aurretik eskuratu behar dira. Ondoren, 23:00etan, Gorka Suaia eta Nikotina taldeen kontzertuak izango dira gaztetxean.

Enrike Garatek 15 urte daramatza preso eta Puertoko (Andaluzia) kartzelan dago. 2.070 kilometro da harako joan-etorria. Iñaki Garces Zuerako (Aragoi) kartzelan dago; 650 kilometro da joan-etorria.



Presoak euskal herriratzeko Otxandion egindako kontzentrazio baten irudia.

IRABAZI • HERRIAN EROSI • IURRETAK IRABAZI • INGURUMENAK IRABAZI

HERRIAN EROSTERAKOAN MUNDU JASANGARRIAGO BAT LORTZEN DUZU

EROSI IURRETAN ETA LORTU EROSKETA PACK BAT

KANPAINAREN OINARRIAK

Iurretako establezimenduetan 50€ gastatuta (ez da beharrezkoa guztia establezimendu eta erosketaren berdinean izatea), lortu telazko poltsa bat, sareko bat eta bi tuper. 2019ko azaroaren 11tik abenduaren 31ra arte egindako erosketak baino ez dira onartuko edo izakinak amaitu arte. Gainera, parte hartu 100€-ko baleen zozketan. Zozketa 2020ko urtarrilaren 8an

Informazio gehiago: www.dendakbai.eus

Iurreta Euzko Udala Dendak Bai

IRABAZI • HERRIAN EROSI • IURRETAK IRABAZI • INGURUMENAK IRABAZI

Matienako anbulatorio parean mobilizazioak egin dituzte pediatriako murrizketak salatzen

Astelehenean eta eguaztenean dozenaka herritar bildu ziren Matienako anbulatorio parean murrizketak salatzen

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Matienako auzotarrak kalera irten dira azken asteetan pizturiko egozinekin eta haserrea erakusteko. Sare sozialetan hainbat kexa idatzi eta gero, hiru elkarretaratze deitu zuten aste honetarako. Astelehenean eta eguaztenean dozenaka herritarrek babestu zituzten deialdiak, eta gaur ere beste elkarretaratze bat egitekoak ziren.

Bertako pediatria zerbitzuak "gainezka" egin duela salatu dute mobilizazioetan. "Mediku pediatria bajaran dago une honetan, eta bere ordezkoa ez dator egunero. Horrez gainera, erizainari kontratua aldatu diote, eta orain lanaldi erdian baino ez dago pediatrian. Ondorioz, Zelaietara, Berrizera, Zaldibarrera edo Gurutzetara (Bizkaia) bidaltzen dituzte erabiltzaileak", azaldu du Ines Blazquez abadiñarrak; mobilizazioak antolatzen ibili den gurasoetarikoa da bera.

Konponbidea bilatu guran

Kontzentrazioan udaleko hainbat ordezkarik ere parte hartu zuten. Abadiñoko Independienteetako zinegotzia den Francisco Antonio Campo Pachok Osakidetari egoera konpontzeko eskatu zion. "Zerbitzua berrezartzea gura dugu", esan zuen. EH Bilduko zinegotzia den Mikel Urrutia ere egon zen



Eguaztenean dozenaka herritar bildu ziren anbulatorio parean.

Erabiltzaileak Zelaietara, Berrizera, Zaldibarrera edo Gurutzetara bidaltzen ari dira

kontzentrazioetan. "Osakidetza oinarritzeko zerbitzuak bermatzea gura dugu. Pribatizazioerako joera bat delakoan gaude, izan ere, Du-

rangon eta Ermuan ere antzerako kasuak gertatzen ari dira", adierazi du Urrutiak.

Udal gobernu taldeak, bere aldetik, egoerak sortu dituen "zailtasunak" onartu zituen prentsa ohar batean: "Matienako Osasun Zentroko pediatria titularraren bajak zailtasun batzuk sortu ditu zerbitzu horretan, eta azken egunotan zerbitzu hori ezin izan da normal-

tasunez eskaini. Garrantzitsua iruditzen zaigu konponbide bat ematea Euskadin dagoen pediatria eskasiagatik Abadiñoko Osasun Zentroan sortzen ari den arazoari". Ohar berean, "pediatraren bajaren ondoren zabaldu diren zurrumurrurru faltsuak" gezurtatu gura izan dituzte. "Lanera itzuli ondoren, Matienan jarraituko du zenbait urtez oraindik", argitu dute.

Errekastoek gainezka egin dute Izurtzan, eta kalteak eragin dituzte hainbat tokitan

IZURTZA • J.D.

Mendietatik datorren ura erreka nagusira bideratzen duten erreka dezente dago Izurtzan. Azken egunetako eurietan gainezka egin dute euritariko batzuek, eta kalteak eragin dituzte. Esaterako, urak gainezka egin du elizaren atzeko palazioaren inguruan eta Azkonizaga jatetxea zegoen inguruan. Azken kasu horretan, ura eraikin barrura sartu da. Udalak errekaetako garbitzeko eskatu dio URA agentziari.

Mañariko paisaiak ardatz hartuta sortutako ibilbideak aurkeztuko dituzte

MAÑARIA • J.D.

Mañariak dituen paisaiak ezaugarria emateko helburuz, hiru ibilbide sortu dituzte, eta, euren berri emateko, udalak aurkezpenera egingo du astelehenean, 18:00etan, udaletxean. *Harria eta Paisaia* izeneko ekintza planean oinarrituta sortu dituzte ibilbideak. Bertan, Mañariak harriagaz eta bestelako osagai naturalekin izandako hartumana aztertu dute, askotariko dokumentuak eta informazioak oinarri lez hartuta.

Merkataritza txikia bultzatzeko asmoz, 'Flash astea' antolatu dute Elorrioren

Azaroaren 22an, dendak 22:00ak arte egongo dira zabalik



lax 'herria iluneta' kanpaina egin zuten.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Iazko azaroan, merkataritza bizi-berritu eta herritarrak sentsibilizatzeko asmoz, Elorrioko Merkataritza Elkartek eta Elorrioko Udalak *herria iluneta* kanpaina ipini zuten martxan.

Zapatu honetan, azaroak 16, EME elkarteak kideek beste kanpaina bati emango diote hasiera, *flash astea*, hain zuzen ere. Hilaren 16tik 24ra bitartean egongo da martxan kanpaina, eta pintxo poteagaz hasiko dute. Hilaren 18tik 24ra bitartean, erakusleihen erakusketa bat egongo da. Eta azaroaren 22an, herriko hainbat komertzio 22:00ak arte zabalduko dituzte ateak. Horrez gainera, antolatzaileek jakitera eman dute hilaren 22an herriko dendetara doazenez hainbat sorpresa aurkituko dituztela bertan.

25 komertzio parte hartuko dute ekimen honetan, eta herritarrek Elorrioko dendetan erostea eta bertako komertzioei bultzada bat ematea du helburu, besteak beste.

25.000 euro Argiñetako nekropolia eraberritzeko

Lanak Argiñetako nekropoliaren garrantzia nabarmentzeko beste urrats bat direla esan du Alazne Mendizabal zinegotziak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak Argiñetako nekropolia eraberritzen hasiko dela jakinarazi du aste honetan. Prentsa ohar bitartez azaldu dutenez, udalak 25.000 euroko aurrekontua izango du lan hauek egiteko. Horietatik 24.000 euro Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzatik datoz, eta beste 1.000 euro udalak berak ipini beharko ditu. Lanak urte amaierarako amaituta egotea aurreikusten dute.

Lan hauen helburua hondatuta dagoen jatorrizko hiliarri bat konpontzea eta haren erreplika bat egitea da. Baita beste hiliarri bitako estalkietan dauden grabatuak txukundu eta bestelako hainbat mantentze lan egitea ere. Horrez gainera, hiliarrien digitalizazioa

ere egingo dutela azaldu dute. Bestalde, Argiñetan informazio panel bat ipiniko dutela ere jakitera eman du udalak.

"Lan hauek beste urrats bat dira Argiñetako nekropoliaren garrantzia nabarmentzeko. Man-

Lanak urte amaierarako amaituta egotea aurreikusten du Elorrioko Udalak

tentze-lanak egin eta inguruarri merezi duen itxura ematen joango gara", adierazi du Alazne Mendizabal, Turismo eta Ondare arloko zinegotziak.

Trikitixaren oraina eta geroa aztertzen dabilta Etxanon, hitzaldi, kontzertu eta ikastaroak lagun

Etxanoko Andra Mari Berri elkarteak trikitixari buruzko aste kulturala antolatu du. Domekan amaituko dira ekitaldiak. Gaur, Gotzon Barandiaranek hitzaldia eskainiko du

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Etxanoko Andra Mari Berri elkarteak egitarau oparoa antolatu du trikitixa aztertzeko. Atzo hasi ziren jardunaldiak, eta bihar amaituko dira. Bidean, askotariko hitzaldi, kontzertu, proiektzio eta ikastaroak landuko dituzte. Gaur, esaterako, Gotzon Barandiaran kulturgileak hitzaldia eskainiko du. 19:00etan izango da, auzo elkartearen egoitzan bertan. Hura amaituta, Korrontzi taldeak kontzertua eskainiko du elizan, 20:30ean. Bihar eta etzi ere bada zer dastatu. Irrintzi ikastaroa, film labur baten proiektzioa, kalejira eta herri bazkaria dira ekintzatariko batzuk. Egitarau osoa ale honetako Agendari dagokion atalean eta Etxanoko elkartearen Facebook orrian dago irakurgai (*Etxanoko Auzo elkarte*).



Korrontzi taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 20:30ean, Etxanoko elizan.

Iazko bideari tiraka

Etxanoko elkarteak iaz ekin zion aste kulturalak antolatzeari Euskal Herriko doinuak aztertzeko. Iaz txalaparta aztertu zuten. Aurten,

Pablo Monasterio elkarteko kideak dioenez, "hurbilean" dutenetik abiatuta erabaki dute trikitixa jorratzea: "Elkartean trikitilariak daudela ikusita, aproposa ikusten genuen

trikitixa jorratzea". Gainera, trikitixak gure herrialdean izandako tokia berreskuratzen laguntzea ere badute helburu. Jardunaldiak domekan amaituko dira.

Zornotzako Udala Astepe auzoa eraberritzen hasiko da urtarrilean

Aurreikuspenen arabera, lanek hiru hilabete iraungo dute. Oinezkoentzako espaloiak eta argiteria hobetuko dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak Astepe auzoa eraberritzeko urbanizazio proiektua egin gura du urtarriletik aurrera. Aurreikusten diren hobekuntzen artean, jolasgunerako sarbidea berritzea dago. Hamazortzi aparkaleku berri ipiniko dituzte, eta arboladi berri

bat egokitzeko asmoa ere badago. Segurtasunari dagokionez, oinezkoentzako espaloiak zabaldu eta farolak berrituko dituzte, "argi gehiago eta segurtasun handiagoa egon dadin inguruan". Lanek 217.000 euroko aurrekontua dute, eta dena ondo bidean badao, hiru hilabetean amaituko lituzkete.



Eraberritze lanak amaituta, irudiaren antzerako itxura hartuko luke Astepe auzoak.



Publizitate-dokumentua

Amorebieta-Etxanon sinesten dugu

Bat eginda gure herriaren garapenaren alde.

Ikusi zer egin dezakegun zuregatik eta zure herriarengatik creemosen.com/amorebietaetxano webgunean.

Oka eta Zengotita auzoak lotzen dituen bidea oinezkoentzat eta txirrindularientzat egokituko dute

Bizkaiko Foru Aldundiak Mallabiko eta Berrizko udalei utziko die errepidea, eta berau konpontzeko, 392.000 euroko diru-laguntza emango diela jakinarazi du Orlan Isoird alkateak



90eko hamarkadatik hona, auzotarrek baino ez dute erabiltzen errepidea.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

90eko hamarkadatik hona, oso jende gutxi erabiltzen du Oka (Berriz) eta Zengotita (Mallabia) auzoak lotzen dituen BI-3340 errepidea. Garai horretara arte, autoen joan-etorri handia zegoen errepide horretan, baina BI-633 errepidea egin zutenetik, auzotarrek baino ez dute erabiltzen.

Orain arte Bizkaiko Foru Aldundiarena zen errepidea, baina azken osoko bilkuran Berrizko Udalak jakitera eman zuen Be-

rrizko eta Mallabiko udalena izango dela. "Auzo biak lotzen dituen errepide zatia udal bioi uztea erabaki du Bizkaiko Foru Aldundiak", jakinarazi zuen Orlan Isoird Berrizko alkateak. Bertan azaldu zuenez, hiru erakundeen arteko hitzarmena sinatutakoan, udalerrri biena izango da bidea.

Bestalde, Aldundiak bide horretarako aurreproiektu bat eginda duela azaldu zuen alkateak osoko bilkuran, eta aurreproiektuaren arabera udalei

392.000 euro emateko konpromisoa hartu duela Aldundiak, bidea konpondu dezaten. "Hori horrela, bidearen zatirik handiena Berrizena denez, laguntza horren %76 guk jasoko genuke, eta gainerako %24a Mallabiko Udalak", esan zuen Isoird.

Hala ere, laguntasun hori jasoko duten arren, dena ezingo dela bertatik ordaindu eta Berrizko Udalak gaineratik 30.000 euro ipini beharko dituela azaldu zuen alkateak.

Oinezkoak eta txirrindulariak

Berrizko eta Mallabiko udalek elkarlanean konponduko duten errepide zatian, oinezkoek eta txirrindulariek izango dute lehentasuna, eta auto bakar batzuek izango dute bertatik igarotzeko aukera. "Barre- ra bat egongo da eta bertako giltza auzotarrek baino ez dute izango", esan du alkateak.

Josu Albizuri EH Bilduko bozeramaileak proiektua ez dutela txarto ikusten esan zuen. Hala ere, horretan ia 400.000 euro gastatzea

**Laguntzaren %76
Berrizko Udalak jasoko
du, eta gainerako %24a
Zaldibarko Udalak**

larregi dela uste dutela nabarmendu zuen: "Gure ustez, bide eder bat egin zitekeen askoz ere diru gutxiagogaz. Hala ere, ez gaude urteetan itxita egon den bide bat berritzearen kontra".

David Jimeno Berrizen Podemoseko kidearen ustez, bide hori konpontzea eta guner horri auzotarren laguntzagaz bizia ematea garrantzitsua da. "Horregatik proiektu honetan parte hartu nahi dugu, eta berriztarrek ere horretarako aukera izatea nahi dugu", bukatu zuen Jimenok.

Garaiko Udala Airtza auzoko horma konpontzen hasiko da

GARAI • EKAITZ HERRERA

Beratu eta Milikubizker baserri inguruetan egingo dira konponketak. Bertan jaustear dagoen lurrezko horma bota, eta hormigoizko bat ipiniko dute. Mendialdetik datozen urak batzeko lanak egin, eta kaltetutako asfalto ere konponduko dute. Bidea itxi egingo dute- nez konpontze lanak egin ahal izateko, auzotarrek beste bide batzuk erabili beharko dituztela dio udalak. Lanak astelehenean hasi eta bi edo hiru hilabete iraungo dute.

Mendi bizikleta martxagaz hasiko dituzte San Andresak Zaldibarren

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

San Andres jaien ospakizuna astebete aurreratuko da zaldibartarrentzat. Mendi bizikleta martxa domeka honetan izango da, hilak 17; eguraldi txarra ekiditeko aurreratu dute antolatzaileek. Aurtengo ekitaldia XVIII. edizioa izango da, eta arku txapelketagaz batera, San Andres jaietan egiten den kirol ekimenik garrantzitsuena da. 10:00etan abiatuko da, udal- txeke plazatik.

Herrian erostea eta ingurumenean eragitea sustatzeko ekimen berria

Erabilera bakarrek plastikoa murrizteko, poltsa eta tuper sortak banatuko dituzte herrian erosten dutenen artean

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Erabilera bakarrek plastikoa murrizteko, poltsa eta tuper sortak banatuko dituzte Iurretako komertzioetan erosten dutenen artean. Okela eta arraina gordetzeko tuper bana, oihalezko poltsa bat eta sareko beste bat emango dizkiote 50 euroko erosketa egiten duenari. Udalak eta Dendak Bai elkarteak asteen ipini dute martxan kanpaina, eta

herrian erostea saritzea eta ingurumenean eragitea da helburua. 500 sorta banatuko dituzte.

Erosketa tiketak, denda bakoak zein gehiagotakoak, Herriarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) aurkeztu behar dira, eta sorta bakarra hartu ahal izango da. Bestalde, urtarrilean 100 euroko erosketa balea zotz egingo dute batutako tiket jabeen artean.



Iñaki Totorikaguena alkatea eta Alex Palacios Dendak Baiiko presidentea.

III. Beer Azokak Euskal Herriko lau garagardogile batuko ditu

Abenduaren 7an egingo dute Iurretako Garagardo Azoka, eta aurten, lehenengoz, umeentzako jolasak egingo dira



Antolatzaileek Askondon egin zuten aurkezpena martitzenean.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Garai Brewing (Garai), Saltus Brewing koop (Murgia), Baobeer (Elgeta) eta Laugar Brewery (Gordexola) garagardoak ezagutu eta dastatzeko aukera egongo da abenduaren 7an. Askondon izango dute aterpea, eta aurten, lehenengoz, barra bakarren eta elkarlanean jardungo dute denek. Bestetik, aurten

umeentzako jolasak ere antolatuko dituzte, Juan Orobiogoitiako ikasleen laguntzagaz. Urteroko talo tailerrak eta musika kontzertuek osatuko dute Garai Brewing Co garagardoaren ekoizleek eta Aitte San Miel Jai Batzordeak prestatutako egitaraua. Azokak udalaren eta herriko tabernen babesarekin, eta 12:00etan hasiko da.

Kirolak hezkuntzarako tresna lez duen balioa azalduko dute Mallabiko hitzaldian

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Kirola hezkuntzarako erreminta lez erabiltzearen garrantziaz jardungo dute gaur hizlari bik Mallabiko Udalak antolatutako hitzaldian. Berbaldea 19:00etan hasiko da, Mallabiko udal pilotalekuan.

Jon Ander Ulazia da hizlarietarikoa bat. Eibar futbol klubeko zuzendaritzako kidea da gaur egun, eta gazteagotan futbol epailea izan zen. Ulaziagaz batera, Athletic klubeko Iñaki Alonsok parte hartuko du. Athleticek aurten abiatu duen umeen babeserako programako arduraduna da Alonso. Horrez gainera, munduan beharrean dauden umei laguntzen dieten UNICEF eta Save the Children Gobernu Kanpoko Erakundeekin lan egin izan du.



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

“Polizia gu basotik botatzera etorriko balitz, basoan egon gura nuke”

Durangaldeko herritar batek ia urte bi daramatza Alemaniako baso batean okupa eta aktibista lez bizitzen



DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Segurtasun arrazoiengatik gurago izan du bere identitatea ezkatatu. 'Yellow' du aktibismoa izena, eta halaxe aurkeztu du bere burua. Durangaldeko herritarra da eta urte bi inguru daramatza Alemaniako Hambach basoan okupa lez bizitzen. Han eraikitako etxoletan bizi da, beste hainbat aktibistagaz batera. Helburu argia du: basoa mozteko dauden planak gelditzea. Haren arrastoa sartu da ANBOTO.

Zergatik erabaki duzu Alemaniako baso batean okupa eta aktibista lez bizitzea?

Nire lagun bi ni baino lehen egon ziren hemen. Haiek eman zidaten baso honen berri. Unibertsitatean nenbilen orduan. Hamar eguneko oporraldia nuela aprobetxatuta, hemen gertatzen zebilena ezagutzera etorri, eta azkenean hemen gelditu nintzen. Unibertsitatea utzi nuen.

Etxean ere abisatu nuen, badaezpada. Esan nien, hemen gelditzen banintzen, ez harrizkeo.

Zein helburu dute zuen okupazioak eta aktibismoak?

Basoaren mozketa etetea. 12.000 urte inguru dituen basoa da, berezia, azpian ur asko duena. Kontua da bere ondoan aire zabaleko ikatz meategi bat dagoela. Zulo erraldoi bat. Meategia kudeatzen duen enpresak basoaren arloa erosi zuen 1978an. Harrezkero, meategia handitzen joan den heinean, basoa moztu dute. Gaur egun, basoaren %10 baino ez da gelditzen. Ingaruko herririk ere botatzen eta husten ari dira.

Zeintzuk ekintza egiten dituzue basoan?

Basoa auzoka banatuta dago, eta taldeka bizi gara. 5-15 kide gara auzo bakoitzean. Eguneroko bizimodua egiteaz gainera, gu basotik irtenarazteko asmoei egiten diegu

aurre. Barrikadak altxatzen ditugu, bidea oztopatzeko. Plataforma itxurako egiturak eraikitzen ditugu arboletan, gu irtenaraztea zailtzeko. Erresistentziarako prestatzen gara. Gainerakoan, ekintza zuzenak eta sabotajeak egiten ditugu meategiaren kontra.

“**Barrikadak eta egiturak eraikitzen ditugu, gu basotik botatzea zailtzeko**”

Zergatik erabaki duzu identitatea ezkatzea?

Segurtasunagatik. Basoan gauden aktibistok ere halaxe egiten dugu. Izen faltsuak erabiltzen ditugu. Gizarteak ilegaltzat jotzen dituen aktibistak daude gure artean. Baita

legeak jazartitako beste hainbat lagun ere. Segurtasunagatik eta besteenganako elkartasunagatik erabaki dut identitatea ezkatzea.

Zuen artean infiltratutako polizia dagoen susmorik baduzue?

Bai. Horrelako mugimenduetan sarri egoten dira. Nik, pertsonalki, beti izan dut gutariko batenganako errezeloa. Pertsona hura basotik kanporatu genuen, sexu abusuak egiteagatik. Infiltratutako polizia bat izan ote zen susmoa areagotzen dit horrek.

Zeintzuk neurri hartzen dituzue zuen identitatea ezkatuan mantentzeko?

Badira atzamarretan mozketak egin edo itsasgarria ipintzen duten aktibistak. Hatz markarik barik, polizia ezingo luke haien identitatea frogatu, eta, ondorioz, ezingo lituzkete ekintzaileen aurkako karguak pilatu. Errepresioari aurre egiteko modu bat da.

Noizbait atxilotu al zaitu Alemaniako polizia?

Bai.

Zer egotzi dizute?

Etxebizitza huts bat okupatu genuen basoaren ondoko herri batean. Handik egun bira, polizia agertu eta etxea hustu zuten. Komisaldegira eraman gintuzten bertan geunden hogeitaz lagunak. Ni 20 orduz izan ninduten bertan. Hatz markak hartu zizkidaten, eta gero aske utzi ninduten. Ez zidaten ezer argirik egotzi. Nire hatz markek ez zuten bat egiten, nik dakidala, ezegaz.

Polizia inguruan izanda, zelan moldatzen zarete basotik sartu-irtenean ibiltzeko?

Egunerokotasunean ez da arazo handirik. Tren geltoki bat dago inguruan, eta handik 15 minutu

daude oinez, basoaren ondoko egitura legal batera ailegatu arte. Gertatzen dena da, bidean, tarteka, polizia autoak edo segurtasun langileak ikusten ditugula. Data bereziak direnean eta jende gehiago biltzea itxaroten dutenean, orduan bai, egoten dira identifikazioak eta atxiloketak.

Zein etorkizun ikusten diozu Hambacher basoari?

Mantentzea gura nuke. Dena dela, gerta liteke basoa mantentzea eta meategia handitzea. Horrek, baina, arriskua ere badakar. Basoaren azpian dagoen ur-masa kanporatu liteke, eta horrek basoa hiltzea eragin dezake gerora.

“**Basoaren azpian dagoen ur-masa kanporatu liteke, eta horrek basoa hiltzea eragin dezake gerora**”

Aktibista lez, noraino ailegatzeko prest zaude?

(Isilunea) Basoan nire ekarpena egiten dudalakoan nago. Oraingoz gustura nago, eta ez bakarrik ekologismoari dagokionez. Basoko jendeagaz hartu-eman ona dut, nire auzokoekin bereziki. Lotura bat sentitzen dut. Polizia gu basotik botatzera etorriko balitz, hemen egon gura nuke.

Zu ez ezik, bada Durangaldeko beste aktibistak?

Durangaldekorik ez. Baina badira euskaldunak.

Zelan ikusten duzu hemen ekologia-rikiko dugun ikuspegia?

Euskal Herrian, iruditzen zait badagoela kontzientzia bat. Baina hemen, Alemanian, garrantzi handia ematen zaio irudiari. Poliziak non-baitetik irtenarazten gaituenean, aktibistak kontziente dira horrek eragin mediatiko bat duela, eta, ondorioz, irudia zaintzen dute.



Hainbat izan dira ekintzaileen eta poliziaen arteko istiluak. HAMBACHFOREST.ORG

2012an hasitako okupazioa, 12.000 urte dituen basoaren azken arnasa babesteko

Basoa mozteko asmoei helegitea ipinita, iaz behin-behinean mozketa etetea lortu zuten aktibistek

EKAITZ HERRERA

Hambach basoa Alemaniako Iparmendebaldean dago, Bonn eta Kolonia hirietatik gertu. Basoa defendatzen duten elkarrekin arabera, 12.000 urte inguru ditu eta 5.500 hektarea zabal zen jatorriz. Zenbait hedabidek zabaldu izan dutenaren arabera, baina, bere

hedadura asko murriztu da eta 100 hektarea inguru ditu gaur egun.

RWE enpresa alemaniarrak urte askoan moztu du basoa, ondoan duen lignitio meategia handitzeko. Gaur egun, energiaren sektoreari lotutako bigarren enpresarik handiena da Alemanian. Basoaren okupazioa 2012ko apirilean hasi

zen. Aktibistek basoa hartu zuten etor zitezkeen ebaketak eteteke. Urte bereko azaroan izan ziren poliziaen eta aktibisten arteko lehenengo istiluak, gerora errepikatuz joan direnak. Iazko urrian, baina, mozketa planei ipinitako helegitea indarrean sartu eta prozesua etetea lortu zuten aktibistek, behin-behinean. Haiek diotenez, baina, basoak ez du etorkizuna ziurtatuta.


Espainiako kongresurako hauteskundeetan EAJ izan da nagusi Durangaldean, baina apirileko datuekin alderatuta harekiko alde gutxiago du EH Bilduk

PSE-EE eta Elkarrekin Podemos alderdiek behera egin dute. PPK hobetu egin ditu emaitzak, eta Más País alderdi estreinatu berriak 452 boto lortu ditu eskualdean. Hego Euskal Herri osoan izandako joera bera izan du Ciudadanosek Durangaldean: zaplaztekoa jaso du

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskal Herria Bildu koalizioa izan dira nagusi Durangaldean. Lehenengoak ia 4.000 botoko alde ateradio bigarrenari, baina apirilaren 28ko hauteskundeekin alderatuta, bien arteko distantzia laburtu egin da. Izan ere, jeltzaleek eskuratutako boto kopurua jaitsi egin da zertxobait (%6,93 egin du behera), eta apirileko emaitzak apurtxo bat hobetu ditu EH Bilduk (%3,42 egin du gora). Gainerako alderdiak atzetik etorri dira. PSE-EEK 759 boto gutxiago jaso ditu, eta Elkarrekin Podemos koalizioak beherazko joera nabarmenagoa izan du; 1.370 boto inguru galdu ditu. PP alderdiak emaitzak hobetu dituen

Espainiako Kongresurako hauteskundeak 2019 (A10) - Durangaldea



Datu eta estatistika guztiak ANBOTOn web orrian daude ikusgai: anboto.org

arren, lehendabiziko lau indarretatik nabarmen urrun gelditu da, 2.286 botogaz. Hauteskunde zenbaketako kolperik handiena, baina, Ciudadanosek jaso du. 1.050 boto izatetik 374 izatera pasatu da. (%64,38 egin du behera). Más País alderdi estreinatu berriak 452 boto eskuratu ditu Durangaldean.

Parte-hartzea igo da Garain

Parte-hartzeak eskualdeko herri guztietan egin du behera, Garain izan ezik. Salbuespena izan da eta datu bitxi hori utzi du. Durangaldeko eta Bizkai osoko datuak eskuan hartuta, Garai izan da parte hartzea igo den herri bakarra. Abstentzioari buruzko datuak begiratzeari besterik ez dago. Apirileko

hauteskundeetan %16,48 izan zen abstentzioa, eta hiru puntu jaitsi da oraingoan, %13,39 izateraino.

Garai salbuespena da Durangaldean eta Bizkai osoan: han baino ez da igo parte-hartzea

Zarraparra asko, babes gutxi

Durangaldeko herritarrek apenas egin diote tokia Vox alderdiari (617 boto). Joan den astean Durangon ekitaldi politikoa egin zuen arren, sortutako zarraparra oharkabean pasatu zaio.

'Alkarregaz eraikiz' topaketan enplegua sustatzeko bideak aztertu dituzte

Formakuntzan eta prestakuntzan dabilzan eragileen bilgune izan dira jardunaldiak. Amankomunazgoak antolatu ditu, eta enpleguari buruzko "sinergiak" sortzea izan dute helburu



Enplegurako dauden baliabideak eta eskariak izan zituzten aztergai, besteak beste.

DURANGALDEA • A.B / E.H.

Amankomunazgoko presidente Mireia Elkororibek azaldu duenez, "enplegarritasuna igotzea" izan da jardunaldien helburuetariko bat. Horretaz gainera, enplegu arloan dabilzan artean "sinergiak sortzea" eta "diagnostiko partekatatu bat" osatzea ere izan dute helburu. Gaineratu du Alkarregaz eraikiz jardunaldiekin lehenengo pausoa eman dela formakuntza eta prestakuntza arloan dabilzan eragileentzat "topagune" eta "gune eraginkor bat" sortzeko.

Iurretako Lanbide Heziketa ikastetxean egin zituzten topake-

tak, joan den barikuan, eta bertan egon zen herriko alkate Iñaki Totorikaguena ere. Bere esanetan,

Iurretako Lanbide Heziketa ikastetxean egin zituzten jardunaldiak, joan den barikuan

egin beharreko bidea erakusten dute Alkarregaz eraikiz jardunaldiek, eta lankidetzarako gonbitea egin du. Jardunaldietan hasitako bide "emankorra" izate gura luke.



San Pio, 3
ELORRIO
Tel.: 946 582 261
elorrio@ikastola.eus

ARDURAZ HEZI, NORTASUNEZ HAZI

www.elorrikoikastola.eus

Ateak zabalik dituzue, etorri eta ezagutu gaitzazue!



ATE IREKIAK

Zatoz gure ikastola ezagutzera!

Ostirala, 2019/11/22, 17:30etan

Larunbata, 2019/11/23, 10:30etan

Argibide gehiago: 946 582 261 · www.elorrikoikastola.eus



E.A.

Hareek denporak!

'OIZTIK ANBOTORA' EMAKUME AITZIDARIAK

Argazkian ageri diren emakume biak Eskarne Aroma eta Itziar Zurituriza dira. Hirurogeiko hamarkadan, emakume durangar hauek asteroko saioa egiten zuten Arrate Irratian. Irratsaioan Ixiar eta Lore ziren. Sasoi hartan euskaraz emititzen zuen irrati bakarra zen. Euskal kultura eta nortasuna aldarrikatzen zituzten, baina "suabe, beste sasoi bat zen eta". 2003an ANBOTOn 61. zenbakian durangar hauen

elkarrizketa kaleratu zen. Saioa Juanito Gallastegiren magnetofoi batean grabatzen zutela azaldu zuten. Gallastegi ezkerretara agertzen da argazkian, eta Juan Antonio Mallona eskumatara.

Irrati horretan bertan, Julene Azpeitia idazleak ipuinak irakurtzen zituen, berak idatzitakoak. "Senarragaz etortzen zen. Azken honek ez zekien euskaraz, baina harro-harro etortzen zen".

J.G.

Durungaldea asteen

Elorrion zapatu solidarioa antolatu dute Aspanovas elkartearen alde

Elorrio | Minbizia duten haurren gurasoen elkarte da Aspanovas, eta Elorrion zapatu solidarioa antolatu du azaroaren 16rako, Kainabera eta Elorrixa elkarteekin eta Elorrioko Udalaren laguntzagaz. Ibilaldi solidarioekin emango diote hasiera egunari. Ibilaldien osterako, mokadu solidarioa antolatu dute frontoian. Horrez gainera, dantzak eta puzgarriak egongo dira herriko plazan.

Eneko Atxa zornotzarrak menu berezia prestatu die Basque Team-eko kirolariei

Durungaldea | Eneko Atxa sukaldari zornotzarrak BAT Basque Team taldeko euskal kirolariak hartu zituen Azurmendi jatetxean. Menu berezi bat prestatu zien, 2020ko udan Tokion antolatuko dituzten Joko Olinpiko eta Paralinpikoei begira. Maider Unda ere egon zen haiekin. Otxandioko Basque Team-eko borrokalari ohia. Enbaxadore lanetan dabil orain euskal kirolarien fundazioan.

Pentsio duinen aldeko manifestaziorako deialdia egin dute Durungaldean

Durungaldea | Biharko, pentsio duinen aldeko elkarretaratzea antolatu dute Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta Eibarren. Durangaldetik, Bilbon egingo den manifestaziorako egin dute deialdia. Areatzan elkartuko dira Durangaldetik bertaratuko direnak. Gizarte talde guztiei zabalduko deialdia dela esan dute. Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak "amaitutzat jotzen du promesen garaia", azaldu dutenez.



Aske utzi dute martitzenean Durangon sexu eraso bat egitea egotzita atxilotutako 24 urteko gaztea

Durango | Martitzenean Durangon sexu eraso bat egitea egotzita atxilotu zuten gaztea aske utzi zuten, karguekin. Erantzaintzak jakitera eman zuenez, epailearen aurretik igaro zen, eta eguaztenean kalean zen. Durangoko Udalak eraso gaitzetsi

eta martxan ipini du protokoloa. "Horrelako gertakariak ez dute tokirik, ez Durangon, ez inon", adierazi zuten.

Baliabide juridiko eta humano guztiak ipini dituzte biktimaren eskura, eta azaldu zuten haien "esku dagoen guztia" egin-

go dutela "behingoz indarkeria matxista desagerrarazi eta gizarte hau gizaki guztion gaineko errespetuan hezteko". Eraso salatzeke, Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladak lapiko jotzea egitera deitu zuen atzo.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Durungaldean gremioekin,
zerikusia duen negoziarik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian



INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK



*Tratu txarren biktima diren emakumeentzako
arreta psikologikoa eta zerbitzu juridikoa
946 200 492*



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Zornotzan mahai-ingurua egingo dute zaintza lanetan dabilzan emakumeen errealitatea erakusteko

Gaian adituak diren hizlariak gonbidatu dituzte, baina ekimen zabal eta parte-hartzailea izatea gura dute antolatzaileek



Martxoaren 8ko ekitaldietan ere landu zuten gaia, lanbide feminizatuen inguruko solasaldi batez.

MAHAI-INGURUA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Talde Feministak eta M8 Plataformak, elkarlanean, ekintza sorta antolatu dute Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean harira, *Indarkeria matxista borrokatuz* izenburupean. Zaintza lanetan dabilzan emakumeei buruz azaroaren 23ko zapatarako aurreikusitako mahai-ingurua da ekimen nagusia. 12:00etan hasiko da, Zelaietako auditorioan.

Arlo horretako langileen lan baldintzen prekaritatea gizarteratzea da helburua. "Zaintza lanetan dabilzan emakumeen errealitateak eta egoerak bisibilizatzeko espazio seguru bat sortu gura dugu", azaldu du Zornotzako Talde Feministako Amaia Fernandezek mahai-ingurua antolatzeko arrazoiaren inguruan. Gai horretan adituak diren hizlariak gonbidatu dituzte, baina ekimen zabal eta parte-hartzailea izatea gura dute, ideien trukaketarako gune bat izan dadila. "Horregatik, dei

egiten diegu zaintza lanetan dabilzan herriko emakumeei euren ekarpenak, egoerak eta gogoetak bertara ekartzeko", dio Fernandezek. Oraingoa ez da zaintza arloko emakumeen gaia gizarteratzeko

“**Deia egiten diegu zaintza lanetan dabilzan emakumeei beraien ekarpen eta gogoetak ekartzeko**”

egiten duten lehenengo ahalegina. Esaterako, uztailean kontzentrazio bat egin zuten Zornotzan, sektore horretan dabilzan emakumeen lan baldintzak hobetzea eskatzeko, eta Emakumeen Nazioarteko Egunean, martxoaren 8an, lanbide feminizatuen inguruko solasaldi bat egin zuten.

Elkarretaratzea

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean bertan, azaroaren 25ean, mobilizazioa eta ekitaldia egingo dituzte, *Indarkeria matxistaren aurrean, autodefentsa feminista* lelopean. Zornotzako Erreferendum plazaatik abiatuko dira, 19:00etan.



AZAROAK 25.

Emakumeen aurkako indarkeriari EZ

**“ZURRUMURRU
SEXISTARIK EZ”
TAILERRAK**

Azaroak 19 eta 26
18:00etatik 19:30ak arte
Zelaieta zentroan
Eman izena: Gizarte Ekintza Sailean
ongizatea@amorebieta.eus
94 630 01 90 (8:30 - 14:30)
Amorebieta-Etxanotik deituta 010era doan
Epea: azaroak 15

**KONTU KONTAKETA
“AMATA PIRATA”**

Azaroak 27
18:00etatik 19:30ak arte
Liburutegian
4-8 urte bitarteko umeei zuzenduta



**EMAKUMEENTZAKO
KLOWN
IKASTAROA**

Azaroak 27, abenduak 4, eta 11
18:00etatik 20:00ak arte
Zelaieta zentroan
Eman izena: Gizarte Ekintza Sailean
ongizatea@amorebieta.eus
94 630 01 90 (8:30 - 14:30)
Amorebieta-Etxanotik deituta
010era doan
Epea: azaroak 25



Ana Vidu Aflourei
Ikerlaria eta Soziologian doktorea
Reus (Katalunia) | 1989

“Jazarri egiten duten irakasleen boterea izugarria da eta biktima oso egoera ahulean ipintzen dute”

Ana Viduk 'Genero indarkeria prebenitzea eta gainditzea: apurtu dezagun isiltasuna' hitzaldia emango du, azaroaren 26an, Ibarretxe kultur etxean

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Jazarpen sexualagatik Bartzelonako unibertsitateko katedratiko bat salatu zuten 14 ikasleentzako bat izan zen Ana Vidu. Isiltasuna apurtu eta 2007-2008 ikasturtean jasadako jazarpena salatu zuen 2011n. Reus-en (Katalunia) hazitakoa da Vidu eta urte bi dira Bilbon bizi dela. Soziologian lizentziatua eta doktorea da, eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean doktoratu eta gero ikerlari dihardu.

Zein neurritan da garrantzitsua isiltasunari amaiera ematea genero biolentziari aurre egiteko?

Funtsezkoa da. Salatzen ez denari "biolentzia isila" deitzen zaio arlo juridikoan, eta ezin da aztertu. Bai, oster, badakiguna, heldu zaiguna, eta horretan asko egin genezake. Inportantea da isiltasuna apurtzea errealitate honetaz berba egiteko, eta berriro biktimizatu barik esku-hartzeko testuinguru bat sortzeko. Funtsezkoa da isiltasuna apurtzen duenak arrakasta izatea, maila personal eta profesionalean, biktimak salatzea animatu daitezen. Bestela, ez dugu isiltasuna amaituko.

Unibertsitatean jazarpen sexuala jasadakoa zara. Zelan hasi zen dena? Karrerako lehenengo kurtsuan

hasi zen, eskolan komentarioak eginez, eduki jazarlea zuten e-mailak bidalita, elkartzeko presionatuz, bere etxera joateko gonbidatuz, eta itxura fisikoari eta eskolako aurkezpenei buruzko komentarioak eginez; azken hori notan eta karrera akademikoan berak duen boterea aditzera emanez. Gero ere jarraitu zuen, masterra hasi nuenean.

“Funtsezkoa da isiltasuna apurtzen duenak arrakasta izatea, biktimak salatzea animatu daitezen”

Izan ziren biktima gehiago? Uste baino gehiago gertatzen den egoera da?

Askoz gehiago izan ziren. Irakasle honek 29 urte eman zituen, urtero, 4-5 ikasle jazartzen. AEBetako Justizia Sailaren arabera, arlo akademikoan emandako jazarpen sexualen kasuak %88ra heltzen dira, eta pentsa liteke askoz kasu gehiago daudela. Unibertsitateetako mekanismo informalek, berdin arteko laguntza sareak bezalakoek, hori baieztatzen dute: ofizialki jakitera ematen diren

edo salatzen diren baino askoz kasu gehiago jasotzen dituzte. Insituzioarekiko konfiantza ezak oso zaila egiten du erabakia hartzea.

Zaila egin zitzaizun pausoa ematea?

Bai, are gehiago salatutako lehenengo kasuaren biktima izanik. Zortea izan nuen katedratiko batek, Ramón Flechak, nire ordezkari onartu zuelako. Ni ausartzen ez nintzena egitera ausartu zen, unibertsitatean isiltasuna apurtzeagatik eta biktimekin solidario agertzeagatik, berak eta bere ikerketa taldeak (CREA) urteetan jasadako ondorio kaltegarri guztien gainetik. Ausardia handiagaz eta babes oso garrantzitsuagaz baino ezin liteke egin.

Berriro biktimizatzea da salaketa ipintzearen ondorioz latzena?

Bai, berriro biktimizatzea eta biktimen alde ipintzen direnek sufritzen duten bigarren mailako jazarpen hori. Biktimen eta hauek babesten dituzten pertsonen kontrako errepresaliak oso gogorak dira; batzuetan, seme-alaben kontrakoak. Unibertsitateak botere handia du eta lotura du kazetariarekin eta justiziagaz lotutako pertsonekin.

Hala ere, beharrezkoa da salatzea.

Bai, salatzea, isiltasuna apurtzea, denok batera joatea. Beharrezkoa da nazioartean *bystander intervention* lez ezagutzen dena: kasu baten berri izan duen edo jazarpena ikusi duen pertsona ororen esku hartzea. Frogatuta dago prebentzio eta esku-hartzeko mekanismorik eraginkorrena dela hori.

Irakasle batzuen botereak isiltasunaren legerari laguntzen dio?

Jazarri egiten duten irakasleak oso boteretsuak dira, eta babestu egiten dituen botere egitura batean daude. Jazartzen uzten diete. Unibertsitatean jakina da irakasle batzuk jazarleak direla, eta inpunitate horretan babestuta, jazartzen jarraitzen dute. Hori da aldatzen gabiltzana.

Ikaslearen etorkizun akademiko eta profesionala dute euren eskuan.

“Jazarri egiten duten irakasleak oso boteretsuak dira eta babestu egiten dituen egitura baten barruan daude”

Irakasle hauek duten boterea izugarria da eta biktima oso egoera ahulean ipintzen du. Babesa behar dute, jazarpen sexualaren kontrako eta biktimari elkartzasuna erakutsiko dion jarrera duen boteredun babesa.

Zein izan beharko litzateke instituzioaren jarrera?

Biktima orori babesa agertu beharko lioke, eta jazarpenaren aurkako jarrera argia hartu. Prebentziotik hasita. Biolentziarik gabeko unibertsitate aske baterako instituzioen konpromisoak eramango gaitu etorkizunean akademia zientifiko eta etiko bat izatera, gure alaba eta ilobek jazarpenik barik ikasi eta lan egiteko aukera izan dezaten.

AZAROAK 25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

18-29

22

Ibarretxe Kultur Etxea
ERAKUSKETA / “HILEKOA(K)”
AINHOA ALDAZABAL + SKOLASTIKA

AZAROAK 18
18:00 Helduen bisita gidatua

AZAROAK 21
Goizean zehar, Juan Orbiogotia Institutuko Batxilergoko ikasleentzat bisita gidatua

Ibarretxe Kultur Etxea
ANTZERKIA
19:00 “DIVA DI PALO”
Sarrera gonbidapenarekin

25

Ibarretxe Kultur Etxea
Eskola zentruetan ekintzak / Pegatinak eta puntu moreen banaketa.

18:30 Adierazpen Institutuzionalaren Irakurketa /

Jarraian “NAGORE” dokumentalaren proiektzioa

23

Club Deportivo Garlari
10:00 AUTODEFENSA IKASTAROA

14 urtetik gorako emakumeentzat / Izen-ematea azaroaren 20rarte
#info: Ibarretxe Kultur Etxea (946215372) eta gizarite-cuglata@iurreta.eus

25

Ibarretxe Kultur Etxea
Eskola zentruetan ekintzak / Pegatinak eta puntu moreen banaketa.

18:30 Adierazpen Institutuzionalaren Irakurketa /

Jarraian “NAGORE” dokumentalaren proiektzioa

26

Ibarretxe Kultur Etxea
HITZALDIA / “PREVENCIÓN Y SUPERACIÓN DE LA VIOLENCIA DE GÉNERO: ROMPAMOS EL SILENCIO”
HIZLARIA / PONENTE – ANA VIDU
14:00 Juan Orbiogotia Institutuko Soziologiako ikasleentzako
17:30 Familiari hezitzaileei, gazteei, elkarteei eta publiko orokorrari zuzendua

29

Ibarretxe Kultur Etxea
19:00 Helduen ipuin kontalaria
“CUANDO TE HABLEN DE AMOR”
Martha Escudero (México)

Abadiñon, Berrizen, Durangon eta Elorrion 83 emakumek jaso zuten arreta indarkeria jasategatik 2018. urtean

Durungaldean indarkeria matxistari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. Protokoloak ezagutzera eman dituen datuak dira

DURANGALDEA • I.GALARZA /J.GUENETXEA
Durungaldeko lau herritan 83 emakumek jaso zuten arreta indarkeria jasategatik. Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. Protokoloan hainbat instituzio eta elkarte aritzen dira elkarlanean. Iazko datuak batzen dituen txostenean Abadiñoko, Berrizko, Du-

Kasuen %60 baino gehiago Durangon gertatu ziren. 51 kasu egon ziren, hain zuzen

rangoko eta Elorrioko datuak bildu dituzte. Orain urte biko datuekin alderatuta, zazpi pertsona gehiagok jaso behar izan zuten arreta, eta 2016an baino hoge emakume

gehiagok. Kasuen %60 baino gehiago Durangon gertatu ziren, 51 hain zuzen ere. Berrizen beste 13 kasu egon ziren; Abadiñon, 10 gehiago; eta Elorrion, 9. Urtarriletik martxora arteko hiruhilekoan erregistratu zen emakumeei eskainitako arreta kopururik handiena (29); Uztailetik irailera bitarteko hiruhilekoan, ostera, arreta kopururik baxuena erregistratu zuten (15). Lau herrietako jai nagusiak urtearen erdiko hiletan daude, baina ez zen inongo eraso sexistarik salatu herrietako jaietan.

II. Protokoloa kideek azpimarratu dute txostenean %87 genero-indarkeria kasuak izan direla. Gainerakoei erreparaturik, kasuen %7 indarkeria sexistak izan dira, eta beste %6a sexu erasoak. Bestalde, hamar biktimatik zazpi 40 urtera arteko emakumeak izan ziren, eta beste hirurak 40tik 65era artekoak.

Protokoloaren barruan sartuta dauden eragile eta taldeek esan du-

%87 genero-indarkeria kasuak izan dira; %7 indarkeria sexista; eta %6 sexu erasoak

tenez, "kezkgarria da indarkeria matxistak biztanleria gaztearen artean duen presentzia". Erasotzaileen profila aztertuz, hamarretik lau 30 urtetik beherakoak izan ziren, eta beste bost 31tik 50 urtera bitartekoak. Horrez gainera, erasotzaileen erdiak bizkaitarrak izan ziren, eta %15 eraso egin zuten udalerrikoak.

Seme-alabekiko eragina

Biktima batzuk gurasoak dira, eta jasandako erasoek euren seme-alabei ere eragin die. *Bizkaiko genero*

indarkeria egoeren arretari buruzko Zifren Txostena argitaratu zuten, eta Durangoko datu batzuk azaldu zituzten bertan. Artean, biktimei eskaini zizkieten harrera etxeak zenbat erabili diren aztertu zuten. Herrietako bat, II. Protokoloan agerzen ez den Zornotza da. Bertan lau plaza zeuden eskuragarri, eta Durangon beste bost. Zornotzan ama bat eta bost seme-alaba, eta Durangon bi ama eta hiru seme-alaba egon ziren harrera etxe horietan. Aurten gertatutako erasoen biktimen datuak ez dituzte urtarilerara arte ezagutaraziko.

Datuak datu, zenbaki hauek ez dute indarkeria matxistaren arloan errealitate osoa islatzen. Hainbat arrazoiengatik, kasu asko ez dira protokoloak koordinatzen dituen zerbitzuetara heltzen. Pertsona horien kasuak zenbaki eta estatistiketatik kanpora gelditzen dira. Hala ere, ez du esan gura egon ez denik. Txostenak argi uzten du jazo

diren kasu batzuen ingurukoa dela azterketa. Ildo horretatik, protokoloaren testuinguruan, indarkeria matxista prebenitzeko eta arreta eskaintzeko baliabideak eta ekin-tzak gauzatzen dira. Protokoloak ehun sozialera eta elkarleen ehunera zabaltzen du koordinazioa. Era

Biktima batzuk gurasoak dira, eta jasandako erasoek euren seme-alabei ere eragin die

berean, errealitate honen aurrean instituzioek ematen duten erantzuna hobetzea dutela helburu azpimarratu dute. Indarkeria jasaten duten emakumeen beharrezkoak lantzen dituzte pertsona hauen eskubideak bermatzeko.

Emakumeen aurkako bortizkeria identifikatzeko berbaldia, hilaren 26an, Berrizko Kultur Etxean

Berrizen martxa bat antolatu dute azaroaren 25erako; 19:00etan hasiko da, udaletxean

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira, Berrizko Udalak egitarau zabala antolatu du. Azaroaren 26rako, esaterako, emakumeen aurkako bortizkeria identifikatzeko berbaldia antolatu dute. Udaletik jakitera eman dutenez, Mundu Berriak taldeko Amaia Urrejola sexu-hezitzaile eta sexu-terapeutak eskainiko du berbaldia. Kultur Etxean izango da eta 18:30ean hasiko da.

Ekitaldi horrez gainera, beste hainbat egitarau antolatu dituzte. Azaroaren 23an, esaterako, *Elisa y Marcela* antzezlan eskainiko dute Kultur Etxean, 20:00etan. Lan horrek ezkontza homosexualak "ondo ikusita" ez dauden garai bateko emakume biren maitasun istorioa kontatzen du.

Azaroaren 27an, *Tomboy* filma egongo da ikusgai. Pelikula honetan, sexua aukeratzeko eskubideaz dihardute. Laure, 10 urteko neska-

toa, auzo berri batera bizitzera doa bere gurasoekin. Han, Laurek bere burua mutilizat aurkezten du, eta Mickael deitzen dela esaten du. Erabaki horren ondorioz bizi dituen egoerak ikusteko aukera emango du filmak.

Bestalde, urtero lez, Berrizen martxa bat antolatu dute azaroaren 25erako. 19:00etan hasiko da, udaletxean, eta Urriaga Plazan amaituko da, herriko hainbat kale-tatik ibili eta gero.



Azaroaren 25ean martxa egiten dute eta martxoaren 8an arineketan Berrizen.

AZAROAK 25 BERRIZ



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

- AZAROAK 23
20:00 ELISA Y MARCELA
Antzerkia. Kultur Etxea (6/8€)
- AZAROAK 25
19:00 MARTXA
Udaletxetik Urriaga Plazara
- AZAROAK 26
18:30 EMAKUMEEN AURKAKO BORTIZKERIA IDENTIFIKATZEN
Hitzaldia. Kultur Etxea. Elebiduna.
- AZAROAK 27
19:00 TOMBOY
Filma. Kultur Etxea



Kasu kopurua

Durangon
51 kasu (%61,4)

Berrizen
13 kasu (%15,6)

Abadiñon
10 kasu (%12)

Elorrion
9 kasu
%10,8

Indarkeria kasuak

Genero biolentzia
%86,5

Sexu erasoak %6

Indarkeria sexista
%7,3



Andra Marian egindako kontzentrazioa Durangon gertatutako eraso bat salatzeko.

Indarkeria matxistari erantzuteko, hilaren 25ean kalera irteteko deia egin dute Zaldibarren

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunerako, egun osoko egitaraua prestatu dute Zaldibarren

ZALDIBAR • A.M.

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunerako, egun osoko egitaraua prestatu dute Zaldibarren. 11:00etan hasita, pultsera taillerra, argazkiak photocallean eta Beldurrak ahaztuta kantaren dantza eta bertsoa egingo dituzte; ikasleek egindako lanak udaltxeko atarian izango dira.

Arratsaldean, Patricia Campe lok hitzaldia eskainiko du liburutegi zaharrean; 17:30ean hasiko

da. 19:00etan, Dominika talde feministak deituta, indarkeria matxistaren aurkako kontzentrazioa egingo dute Lehendakari Agirre parkean.

Dominikak indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzea deitu du azaroaren 25erako

Azaroaren 25ean zaldibartarrak kalera ateratzeko asmoz,

hainbat ekimen egingo dira aurretik ere. Horrela, azaroaren 18an, *Mujer: sufragio y derechos universales* ikus-entzunezko lana proiektatuko dute; 18:30ean, liburutegi zaharrean.

Bestalde, azaroaren 18an eta abenduaren 14an, emakumezkoentzako ahalduzte tailerra eskainiko dute liburutegi zaharrean. 'Risoterapia: la risa como recurso para la vida de las mujeres' deitzen da tailerra.



Eraso sexista bat salatzeko Zaldibarren egindako elkarretaratzea.

AZAROAK 25 ²⁰¹⁹

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

AZAROAK 18

IKUS-ENTZUN EZKOEN PROIEKZIOA
"Mujer: sufragio y derechos universales"

🕒 18:30
📍 LIBURUTEGI ZAHARREAN

EMAKUMEEN AHALDUNTZE TAILERRA

RISOTERAPIA: LA RISA COMO RECURSO PARA LA VIDA DE LAS MUJERES

🕒 AZAROAK 18 eta ABENDUAK 14
📍 LIBURUTEGI ZAHARREAN

AZAROAK 25

📍 **Udaltxeko atarian**
ZALDIBARKO ESKOLAKO IKASLEEN LANA IKUSGAI

🕒 **11:00 - 12:30** 📍 **ZALDIBARKO ESKOLAN**
ARGAZKIAK PHOTOCALLEAN
PULTSERA TAILERRA
"BELDURRAK AHAZTUTA" KANTAREN DANTZA
BERTSOA

🕒 **17:30tan** 📍 **LIBURUTEGI ZAHARREAN**
HITZALDIA PATRICIA CAMPELOren eskutik

🕒 **19:00retan** 📍 **LEHENDAKARI AGIRRE PARKEAN**
KONTZENTRAZIOA: Dominika talde feministak deitua

**INDARKERIA
MATXISTARIK
EZ!**

“Abadiñoako emakumeen lekukotzei balioa emanez, errelato kolektibo bat sortu gura dugu”

Artea eta berdintasuna uztartzen dituen proiektua martxan jarriko dute Abadiño; horretarako herriko emakumeak parte-hartzera deitu dituzte



Miriam Rodriguez Morán
Historialaria
Abadiño | 1983
Saray Perez Castilla
Artista eta historialaria
Bilbo | 1987

Abadiño
Euzko Udala

Emakumea eta Bardintasuna
Mujer e Igualdad

azaroak 25
EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIA
DESAGERRARAZTEKO
NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK 25

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

**ADIERAZI ZURE GAITZESPEN IRMOA
INDARKERIA MATXISTARI ZURE ETXeko LEHIOAN, NEGOZIOAN...
PUNTU HAU JARRIZ**

INDARKERIA MATXISTA GABEKO ETORKIZUNARI BEGIRA

Indarkeria matxistak genero diskriminazioan eta patriarkatu sistematan du bere jatorria eta hamaika aurpegi ditu.

Indarkeriari matxistari argi eta ozen EZETZ esan behar diogu, gure egunerokotasunean bizi ditugun egoerak salatu eta ikusarazi, emakume biktimak beti sinestu eta bakoitzak bere esparrutik daukan erantzukizuna onartu.

Abadiñoako Udalak, abadiñoar guztiei dei egiten dizuegu parte hartzera ondorengo jardueretan:

Eguna	Ordua	Ekintza	Lekua
AZAROAK 16	10:30 - 19:30	AUTODEFENSA FEMINISTA TAILERRA - SARRERA	ERROTA KULTUR ETXEA
AZAROAK 19	19:00 - 20:30	ETORKIZUNERAKO OROITZAPENAK (Ahalduztzeko Praktika Artistikoak) - Aurkezpena eta Hitzaldia	ERROTA KULTUR ETXEA
AZAROAK 20	10:00 - 13:00 19:00 - 20:00	ETORKIZUNERAKO OROITZAPENAK (Ahalduztzeko Praktika Artistikoak) - Tailerra	ERROTA KULTUR ETXEA
AZAROAK 21	10:00 - 13:00 19:00 - 20:00	ETORKIZUNERAKO OROITZAPENAK (Ahalduztzeko Praktika Artistikoak) - Tailerra	TXANPORTA KULTUR ETXEA
AZAROAK 22	19:00 - 20:30	ETORKIZUNERAKO OROITZAPENAK (Ahalduztzeko Praktika Artistikoak) - Memoriaren Zeremonia - Abadiñoako hainbat lekutan	MATIENAKO FRONTOIA
AZAROAK 23	Arratsalde	BELDUR BARIK TOPAKETA OROKORRA (Sari banaketa eta tailerrak Beldur Barik jarrerarekin!) 12 ETA 26 URTE ARTEKO GAZTEENTZAT Autobusean izena emateko: www.beldurbarik.eus	BILBO AZKUNA ZENTROA
AZAROAK 25	19:00	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA - Kontzentrazioa	TRAIABARREN KALEA

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Ekintza artistiko baten bitartez, etorkizunerako memoria eraiki gura dute Abadiñoan. Emakumeen testigantzak batu eta denboraren kapsula batean lurperatuko dituzte. Antolatzaileek ahalduztze ariketa izatea gura dute. Azaroaren 19an aurkeztuko dute proiektua, Errota Kultur Etxean.

Tindufeko (Aljeria) kanpaleketan abiatu zenuten proiektua Abadiñoan ekarriko duzue.

Saray Perez: *Paisaia ikusezinak* izeneko proiektutik sortu da dena. Gizarteko ikusezintasunak edo biolentziak azaleratzeko sortu zen. Bidearen hasieran, Mendebaldeko sahararren errealitatea islatzea zen helburua. Horretarako, errefuxiatuen kanpaleketara joan nintzen. Artea errealitate anitzentzako laguntza izan daitekeela uste dut. Oso erreminta beharrezkoa da. Beraz, entzunaldiak egiteari ekin genion. Metodologia artistikoa da, baina Mendebaldeko Saharan gertatu zena ikertzeko, soziologo batek egingo lukeen lanaren antzekoa. Gizon zein emakumeak grabatu genituen, beti ere Mendebaldeko Sahara ezagutu zutenak.

Ahalduztzeko teknika dela esaten duzue.

S.P.: Ez da lekukotzak grabatzea bakarrik. Batzuetan gure berbak barruan dauden arren, ez dira esaten, eta, beraz, errealitate hori ez da

existitzen. Ikusezinak dira. Berbak ipintzerakoan liberazio pertsonal bat sortzen da, eta horrek ahalduztzen laguntzen du.

Miriam Rodriguez: Lekukotzei balioa emanez, errelato kolektibo bat sortu gura dugu. Sarritan, adituek gai askoren inguruan berba egiten dute. Kasu honetan, emakumeek berba egin dezatela gura dugu.

Zer dira denboraren kapsulak?

S.P.: Zeramikazkoak dira eta mimo handiz eginda daude, grabazioak barruan sartzeko. Kolektibitatearen eta berridazketaren beharri-zana dago. Horregatik, aurretik erabilia egon dira, kassetetan

“**Azaroaren 20an Errotan egongo gara, eta azaroaren 21ean Txanportan. Goizean eta arratsaldean.**”

grabatuko dira testigantzak eta lurperatu egingo dira. Ekitaldi sinboliko lez planteatzen dugu, hazia eriten den lez. Imajinatzen dut etorkizunean lurpetik atera eta hau aurkitzen dutenean, entzun egingo dituztela.

Ekuadorren ere antzeko ekimen bat egin duzue.

M.R.: Arteagaz lotuta zegoen proiektua izan zen. Artisten lekukotzak batu genituen.

Zein egitarau prestatu duzue?

M.R.: Azaroaren 19an, 19:00etan, proiektua azalduko dugu, Errota kultur etxean. Emakume guztiak parte-hartzera deitzen ditugu. Biolentziari edo minari buruz berba egiteaz gainera, eurek gura duten guztia kontatu diezagukete. Lekukotza positiboak ere izan daitezke. Datozela lasai. Entzutera bakarrik etorri daitezke.

S.P.: Entzutearen garrantzia azpimarratu gura dugu.

Noiz egingo dituzue grabazioak?

M.R.: Azaroaren 20an Errotan egongo gara, eta azaroaren 21ean Txanportan. Goizean eta arratsaldean egongo gara.

Azaroaren 22an amaituko da.

M.R.: Ibilbide bat egingo dugu kapsula horiek landatuko diren lekuetatik.

S.P.: Hau guztia memoriaren zeremonia bat da, eta parte-hartzaile guztiekin ospatu gura dugu. Batu eta denon artean zerbait eraikitzen dugunean, zeremonia handi bategaz itxi behar da hori.

Noiz entzungo dira entzunaldi horiek?

M.R.: Martxoan jasotako audioekin memoriaren erakusketa bat egingo dugu.

Artelan bat sortuko duzue.

M.R.: Parte-hartzaileek euren ekarpena egingo dute artelan baten sorreran. *paisajes invisibles.org* webgunean.

“Ziberjazarpena komunikabide digitalen bitartez egiten den eraso pertsonal larria da”

Jone Zalduegik ziberjazarpenaren eta indarkeria matxistaren inguruko tailerra dinamizatuko du. Azaroaren 19an izango da, 18:45ean, Ametsolan



Jone Zalduegi Urresti
Emoki Elkarte
Bilbo | 1987

TAILERRA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Emoki elkarteko Jone Zalduegik ziberjazarpenaren eta indarkeria matxistaren inguruko berbaldia dinamizatuko du.

Azaroaren 19an, genero ziberjazarpenaren inguruko tailerra egingo duzue. Zer aurkituko dute bertaratzen direnek?
Ziberjazarpenaren eta indarkeria matxistaren nondik norakoak landuko ditugu. Hainbat kontzeptu jorratuko ditugu, eta alde zuzeneko jorretan informazioa ordenatuko eta finkatzeko asmoa izango dugu. Bestalde, espazio digitalean pertsonok pairatzen ditugun zenbait egoera aztertu eta hauek eragiten dituzten ondorioei buruz gogoeta egingo dugu.

Nori zuzenduta dago tailerra?
Gogoetarako espazio batean mugiltzeko interesa duten pertsonen.
Eta zer da ziberjazarpena?
Ziberjazarpena komunikabide digitalen bitartez egiten den eraso pertsonal larria bat. Gainera, ziberjazarpenak milaka forma izan

ditzake. Esaterako, gaur egun sare sozialen bitartez geroago eta errazagoa da beste pertsona bati min egitea, bere datu pertsonalak eta informazioa partekatu ditzakegu eta.

Jendea kontziente da ziberjazarpena zer den?

Jendeak kontzeptua ezagutzen duen arren, ez du oso barneratuta sare sozialetan ipintzen dugun iruzkin batek zelako eragina izan dezakeen beste pertsona baten bizitzan zein honen emozioetan.

Horrelako jazarpen bat jasotzerakoan, jendea konturatzen da eraso egin diotela?

Horrelako jokabideak oso normalizatuta daude gaur egun, eta jendeak errazago ahazten du pantaila baten atzean enpatia zer den. Baina, bai, eraso bat jasotzen dugunean, erasoaren biktima sentitzen gara. Beste gauza bat da ea emozionalki badakigun eraso hori identifikatzen edo kudeatzen. Beste batzuetan, ostera, ez ditugu gure eskubideak ezagutzen.

Zelan jokatu behar da horrelako kasuen aurrean?

Kasu hauek salatu egin behar dira. Hala ere, beste hainbat modutan babestu dezakegu geure burua. Esaterako, sare sozialetan erakusten dugunari mugak ipini ahal dizkiogu, gure informazioa erasotzailearen arma delako. Bestalde, horrelako egoerek gure emozioetan duten eraginari erreparatzea ere oso garrantzitsua da, eta gure hurbilekoekin partekatzea.

Interneten geroago eta gehiago gaude. Beraz, arriskua handiagoa da?

Interneten eta kalean pertsona berak gaude, eta besteek egiten dutena ez dago gure esku. Hala ere, geure buruari galdetu beharoko genioke ea gure informazioa noraino hedatu gura dugun. Kontziente izan behar dugu "klik" bakar batetegaz munduko beste puntara heltzen dela gure informazioa. Hori batzuetan, onerako izan daiteke, baina baita txarre-rako ere.

Eguna	Ekintza	Jasotzaileak	Lekua
22 Ostirala 11:00 20:30	ANTZEZLANA: ZER GERTATU OTE ZITZAION ANA GARCARI? Zuzendaritza / Borja Ruiz / P6ko Gazte Konpainia Biolentzia, emakume edo gizonen eta pertsona bakoitzak izan nahi duenaz hitz egiten da. Araua jarraitzen ez duten gorputzak dira: emakume ez-estereotipatuak, intersexualak, transexualak, cross-dresserrak, plumadun gizonak...	11:00 13 urtetik gorako gazteak Doan 20:30: helduak Arriolan sarrera	Arriola Antzokia
23 Larunbata 16:30	BELDUR BARIK TOPAKETA Gazteentzako tailerrak, musika, sariak... Izena emateko: berdintasuna@elorrio.eus 946570809 Info+ www.beldurbarik.eus	Elorrioko gazteak	Bilbo Alhondiga
25 Astelehena 19:00	MOBILIZAZIOA ELORRIAN INDARKERIA MATXISTARI EZ!	Herritar guztiak Todos y todas	Herriko Plazan
<p>HARTU ZURE BANDERA UDALETXEAN, ITURRI KULTUR ETXEAN EDO TURISMO BULEGOAN, ETA BALKOIAN ESKEGI! AZAROAREN 25EAN ELORRIO OSOAN INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO OIHU KOLEKTIBOA ENTZUN DADIN!</p>			
Eguna	Ekintza	Jasotzaileak	Lekua
19 Asteartea 18:45	TAILERRA GENERO-ZIBERJAZARPENA Dinamizatzailea / Emoki Elkarte Indarkeria matxistan eragina duten faktore digitalak: bideo-jokoak, sare sozialak, youtuberrak etab. • Ziberjazarpenaren adierazleak • Zibererasoak sexualitatearen eraikitzean duen eragina • Harreman osasuntsuak garatzeko irizpideak • Indarkeria matxista eta pornografia	Gurasoak, hezitzaileak... interesa duen oro Doan	Ametsola
21 Osteguna 16:00	FILM DIDAKTIKOA: EL DIARIO DE UNA NINFÓMANA Antolatzailea / Elorri Lore Elkarteak Kuriositate sexuala asetzeko esperientziak bilatzen duen emakumea, eta...	Emakumeak Doan	Iturri Kultur Etxea

info + : 94 657 08 09 / berdintasuna@elorrio.eus

"Izugarria izan da Jardunaldi Feminista hauetan Durangon bizi izan dena, eta esker oneko berbak baino ez ditugu"

Antolatzaileek eta Durangoko Bilgune Feministak Jardunaldi Feministen balorazioa egin dute. Auzolanetik abiatutako jardunaldi arrakastatsuak izan dira

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango izan da epizentro, erdigune. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren hitzordurik nagusia aterpetu du Durangok azaro honen hasieran egin diren Jardunaldi Feministetan. Eta bertan landutakoak segida izango du aurrerantzean, Euskal Herri osora zabalduko baitira bertan adostutako lan ildoak. Durangoko Bilgune Feministako kideak bertan izan ziren, eta, azaldu dutenez, "izugarria izan da" hiru egunean Durangon bizitakoa. Jardunaldietako "inurri lan handia, eduki politiko zabala eta antolakuntza maila altua" nabarmendu dituzte.

"Haustura eta eraldaketa"

Jardunaldi Feministen antolatzaileek "haustura eta eraldaketa" aldarrikatu dituzte "eredu antidemokratiko eta antisozialari" aurre egiteko. "Eguneroko ogia dira emakumeak pobrezia kondentzen dituzten politika neoliberalak, biolentzia matxistaren gorakada, arrazismo instituzionala eta lurra-



Azaro hasieran, Euskal Herri osotik ailegatutako 3.000 emakume baino gehiago batu ziren Durangon.

ren esplotazioa. Emakumeek, lehenengo pertsonan bizi dute sistema zapaltzailea", diote. Balorazio hori bere egiteaz gainera, instituzio batzuek feminismoarekiko duten "zurikeria" ere kritikatu du Durangoko Bilgune Feministak. "Zuriketarak norabide askotatik datozela jakin-

da, erradikaltasuna azpimarratzeko ere" balio izan diote Jardunaldiek. Matxismoak "milaka aurpegi, adierazpen eta forma" dituela, eta "horregatik, indarkeria kasuak instituzioetatik kanpora kudeatzeko planteamenduak" beharrezkoak direla defendatu dute.

Ikuspegi soziala

Joan den Martxoaren 8an aldarrikatutako itun soziala ere jardunaldietako beste aipagai bat izan da. "Pentsio duinak, agro-ekofeminismoa, lurraren defentsa, klase borroka eta etxeko langileen eskubideak" antolatzera deitu dute.

Dekolonizazioa

Balantzearen beste ezaugarri bat botere harremanei buruzkoa da. Norberaren pribilegio eta zapalkuntzei erreparatzeko ordua dela diote, "gorputzak, pentsamenduak eta lurraldeak dekolonizatzea denon ardura" dela iritzita. "Norbere praktikak zaintzeko" ordua da, haien esanetan.

Gorputzak, libre

Datozen belaunaldien mesedetan, mugimendu feministak lanean segituko du gorputzak eta bizitzak indarkeriatik libre egon daitezen. "Justizia eta autodefentsa feminista" aldarrikatu dituzte "emakumeen gorputzekiko kontrola indartu gura duten polizia eta justizia patriarkalaren aurrean".

Sexualitate politiko bat

Sexualitateek, gorputzek eta desierek esangura politikoa dutela ulertuta, "disidentzia" eramango dute praktikara, "heteropatriarkatu kapazizistari" aurre egiteko alternatiba politiko modura.

2019 AZAROAK 25,

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



Azaroak 23

Antzerkia/Dantza/ Musika

¿Qué fue de Ana García? Compañía Joven Pabellón 6
19:00 San Agustín Kultur Gunea

Beldur Barik Topaketa Bilbao azaroak 23

Azkuna Zentroa Alhóndiga
16:30-21:30
Zer? Tailerrak, photocall, sari banaketa, La Basu kontzertua.
Busak doan joateko

Info gehiago:
www.beldurbarik.eus

Azaroak 24

IV. Emakumeen lasterketa
11:15 Lasterketa laburra. Nahi duten guztientzat
11:30 Emakumeen lasterketa
Ezkurdi plaza
Inskripzioak:
www.kirolprobak.com,
Andragunean eta Landako II kiroldegian

Antolatzaileak:
Durango Masters Kirol Kluba

Azaroak 25

Adierazpen instituzionala
Manifestazioa
Informazio gehiago jasotzeko adi deialdiei eta jarraitu sare sozialak
Antolatzaileak:
Durangoko Mugimendu Feministak

Abenduak 4

Hitzaldia
Emakumeen aurkako biolentziak ez du adinik
Ordua: **18:00**
Andragunean
Antolatzaileak:
Andereak – Oneka Emakume pentsiodunen elkarte

***Sentsibilizazio eta bortizkeria prebenitzeko tailerrak ikastetxeetan**



Ostalaritza gida

anboto

 **Iurreta**



GAUARGI
Dantzari, 4 behe - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak 6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta jaiegunetan rabak.

 **Durango**



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.

 **Durango**



GORA GORA
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO
Tel.: 946 811 384
Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

 **Abadiño**




ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

 **Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrea kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alai.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**





'Sagutxo tuntuna'

ANTZERKIA

DURANGON :: Azaroak 17

Loraldia jaialdiaren eskutik aurkeztutako produkzioa

Musika klasikoa, txotxongiloak, antzerkia eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna igoko dute oholtzara, domekan, azaroaren 17an, San Agustin kulturgunean. Loraldia jaialdiaren barruan sortutako produkzioa da eta Erru-

siako etxalde batean gertatzen da istorioa, animaliek ilunabarra heltzerakoan lotara joan gura dutenean. Denak logura dira eta Sagu andereak semetxoa kulunkatuko du sehaska kanta bat abesten dion bitartean. Baina se-



'El gran cabaret de Elvira', La noche Boluda antzerki zikloaren eskutik Plateruenean

ANTZERKIA | Marta Renyerrek *El gran cabaret de Elvira* formatu txikiko ikuskizuna aurkeztuko

du Durangoko Plateruena kafe antzokian, azaroaren 21ean. Tarragonako antzezlea La noche

Boluda antzerki zikloaren eskutik igoko da oholtzara, 21:00etan.

Antzezle izatea amesten duen emakume bakartia da Elvira, surrealista eta irrigarria. Berak dituen askotariko talentuak erakutsi gura dizkiko munduari, eta horretarako momentua heldu zaio. Emozioz eta zorakeriaz betetako bidaia da ikuskizuna, publikoagaz konplizitate berezi bat lortzen duena.

Azaroaren 15ean

BERRIZ antzerkia
'Ulises' (Gorakada),
18:15ean, Kultur Etxean.

DURANGO musika
Nikki Hill, 21:30ean,
Plateruena kafe antzokian. Abeslari estatubatuarrek Feeling Roots biraren barruan eskainiko du kontzertua.

DURANGO
Antonio's-en urteurrena
Luntxa, 20:30ean.
Kontzertua: Baske Street Boys, 21:30ean. Ondoren, **Dj Derte.**

ELORRIO musika
No-Land Trio, 22:30ean,
Ateneoan. Arriolako XXX. Jazz Blues Jaialdiaren barruan.

IURRETA musika
Xixili quartet, 19:00etan,
Ibarretxe kultur etxean. Musikaldia.

ZORNOTZA antzerkia
'Izoztutako haize bezala' (Tanttaka), 20:15ean,
Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA
Euskal Herriko doinuak
'Trikitixa egungo kultur gintzan: ederra zarea la pentsetan badozu' hitzaldia, 19:00etan, Etxanon. Hizlaria: Gotzon Barandiaran.
Kontzertua: Korrontzi, 20:30ean.

Azaroaren 16an

ABADIÑO antzerkia
'Madres y pasotas' (Tarima Beltza), 19:00etan, Errota kultur etxean. Antzerkiño.

BERRIZ antzerkia
'Rita' (Txalo produkzioak), 20:00etan, Kultur Etxean.



metxoak ez du lo hartzeko asmorik eta Sagu amak beste animaliangana joko du bere txikia lokartzeko. Hiru emanaldi egongo dira: 12:00etan, 17:30ean eta 18:30ean.

Azken Sustraiak taldeak disko berria aurkeztuko du Elorrion

MUSIKA | Azken Sustraiak talde gipuzkoarrak *Utopian gara aske* izeneko disko berria aurkeztuko du azaroaren 16an, Elorrioko Gaztetxean. Taldekide guztien filosofia ez ezik, lan horri izena ematen dion

abestiak disko osoa laburbiltzen du, eurek azaldu dutenez. Jaialdia 18:00etan hasiko da, eta honako talde hauek ere igoko dira oholtzara: The Bobby's, El sonido de la metralla, Rebel Rid, Knockout eta Estutu.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

DURANGO

Anttonio's-en urteurrena
Pintxada kolektiboa,
18:30ean.

DURANGO suziriak

Suziri jaurtiketa,
17:30ean, Zuhatzolan.
Behaketa astronomikoa,
18:30ean (euria bada ez da egingo. Lainotuta badago, suziri jaurtiketa bakarrik).
Izarra Astronomia Elkarte.

ELORRIO musika

Christian Dozzler,
22:30ean, Ateneoan.
Arriolako XXX. Jazz Blues Jaialdia.

ZORNOTZA

Euskal Herriko doinuak
'Erraiak' film laburra,
11:00etan; eta 12:00etan,
Irrintzi ikastaroa,
Zornotza Aretoan.
Kalejira Etxanora,
13:00ean.
Bazkaria, 14:30ean.
Inshala talde akustikoa,
16:00etan; eta 17:30ean,
Trakamatraka.
Ein Go taldeagaz kantua eta dantza, 19:30ean.

Azaroaren 17an

ABADIÑO antzerkia
'Erlauntza' (Vaiven produkzioak), 19:00etan,
Errota kultur etxean.
Antzerkiño.

DURANGO dantza

Dantzadantza, 18:30etik
20:30era, Landako
kiroldegian.

ELORRIO musika

Jon Gurrutxuga & Urbil Artola, 20:00etan,
Portalekuan. Arriolako XXX.
Jazz Blues Jaialdia.

ELORRIO antzerkia

'Urtzaroa' (La Coja Dansa), 17:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA kirola

Emakumearen eta behorraren arteko erronka, 12:30ean,
probalekuan. Heki herri kirol klubak antolatuta.

ZORNOTZA

Euskal Herriko doinuak
'Aspaldiko hauspoak astintzen' solasaldia,
12:00etan, Etxanon.

Azaroaren 18an

DURANGO tailerra
Sukaldaritza tailerra: Maroko, 18:30ean. Cous Cousa egingo dute Hanaa Laftouhiren eskutik. Izena eman behar da Bizenta Mogel bibliotekan.
Bideak Gurutzatuz: Gure komunitatea osatzen duten migrazio arloko bizi istorioak egitarauaren barruan.

Azaroaren 19an

ZORNOTZA zinekluba

KINE zinekluba: 'Un amor imposible' (Zuz.: Catherine Corsini),
20:15ean, Zornotza Aretoan. Zineforuma,
18:45etik 19:45era.

Azaroaren 20an

DURANGO hitzaldia
'Maternidades migradas a través del comic: migrar por/con/sin/para las criaturas', 19:00etan,
Bizenta Mogel bibliotekan.
Bideak Gurutzatuz: Gure komunitatea osatzen duten migrazio arloko bizi istorioak egitarauaren barruan.

Azaroak 15 - 21:30etan
NIKKI HILL
Kontzertua

Azaroak 16 - 21:30etan
THE CHEAP AND NASTY BOYS + ASTOTURFER
Kontzertua

www.plateruena.eus

PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatetxea@plateruena.net



DURANGO izen-ematea
Itzartuko Gaupasa. 2006-2009. urteetan jaiotako umeentzat gaupasa antolatu dute azaroaren 23tik 24ra. Izena emateko azken eguna azaroaren 20a da, Berbaroko bulegoan. Informazio gehiagorako: aisialdia@berbaro.eus / 94 620 25 40

ELORRIO musika

Makala&Jimmy Bidaurreta, 21:30ean,
Ateneoan. Arriolako XXX.
Jazz Blues Jaialdia.

Azaroaren 21ean

ELORRIO musika

Trizak, 22:30ean,
Ateneoan. Arriolako XXX.
Jazz Blues Jaialdia.

Azaroaren 22ra arte

BERRIZ erakusketa

'Munduko talderik onena, Athletic-en istorioak'.
Barikuetan, 18:30etik
20:30era, Kultur Etxean.
Asteburuan ere bai, kultur jardueren ordutegian.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **La trinchera infinita**
barikua 15: 22:00
domeka 17: 19:00

:: Durango - ZUGAZA

• **Si yo fuera rico**
barikua 15: 19:30/22:00
zapatua 16: 17:45/20:00/22:30
domeka 17: 17:00/19:00 21:00
astelehena 18: 18:30/21:00
martitzena 19: 20:00
eguzatena 20: 20:00

• **La casa del terror**
barikua 15: 19:30/22:00
zapatua 16: 20:00/22:30
domeka 17: 19:00/21:00
astelehena 18: 18:30/21:00
martitzena 19: 20:00
eguzatena 20: 20:00

• **Buenos principios**
barikua 15: 19:30
zapatua 16: 19:00
domeka 17: 18:30
astelehena 18: 18:30
martitzena 19: 20:00
eguzatena 20: 20:00

• **La trinchera infinita**
barikua 15: 21:30
zapatua 16: 21:15
domeka 17: 20:30
astelehena 18: 20:30

• **La familia Adams**
zapatua 16: 17:45
domeka 17: 17:00

• **Abominable**
zapatua 16: 17:00
domeka 17: 16:30

:: Elorrio - ARRIOLA

• **La trinchera infinita**
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:00

:: Zornotza - ARETOA

• **Ventajas de viajar en tren**
zapatua 16: 19:30/22:00
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:15


• **Los Rodríguez y el más allá**
zapatua 16: 17:00
domeka 17: 17:00



AMaiUR, 1512

Oso aspaldi iragandako gertaera dela gogoan hartuta, badira gutxienez sei elementu irudi honetan aurkitu beharko ez genituzkeenak, gehienak artean asmatu gabeak zirelako. Zeintzuk dira?

DOMINO ZATIA



Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.





Erretratu hauetan ikusten dituzun lagun hauek denak ikaskideak izan ziren txikitik. Begira iezazozu orain dela 25 urte egindako argazkiari. Ba al dakizu zein den zein?



A



zazu fitxetako espazio zuriak,
zati hau zuzena izan dadin.



SUDOKU KOLORETSUA

Sudoku hau ongi osatzeko, kolore egokiaz margotu beharko dituzu biribil zuriak. Gogoratu kolore bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe bakoitzeko, lerro bakoitzeko eta sei laukik osatzen duten area bakoitzeko.

Hauak dira aukerak:



www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiarri)

FunWeeks by Kids&Us.
language school

Christmas

Hiri kanpamentuak ingelesez 3 urtetik 10 urtera

Kids&Us Durango
Durangoko Plateruen Plaza 8 · 48200 Durango
T. 609 533 343 · durango@kidsandus.es

“Liburu batean agertzen diren erreferentzia guztiek erakusten dute nondik datorren norberaren sorkuntza”

Durangarrak 'Zeldak. Gorputz honetatik' bere lehenengo poesia liburu kaleratu du, Balea Zuria argitaletxeagaz; Hitz liburudendan dago salgai



Elena Olave Duñabeitia

Artearen Historian
lizentziatua

Durango | 1997

ez dela ikusten gure lana, ez dugu baliabiderik gazteak plazara ateratzeko. Literatur lehiaketak baino ez ditugu, argitaletxeetara bidali ditzakezu zure lanak, baina oso ausera izan behar zara horretarako.

Eta zure kasuan, nola publikatu duzu?

Lehiaketa batera aurkeztu nintzen. Ez nuen irabazi, baina nire lanak Balea Zuriako kideen arreta deitu zuen. Sortzaile berriei ahotsa ematea dute helburu, eta oso helburu polita dela irutzen zait. Literatur-plaza nahiko mundu itxi eta indibiduala dela iruditzen zait, eta ez da erraza bertan sartzea, literatur merkatuaren markotik at bestelako espazio eta ekimenak sortzen ari diren arren.

Hitzaurrea Joseba Sarrionandiarena da.

Argitaletxetik planteatu zioten. Nik ez nekien, baina ilusio handia egin zidan. Txikitatik ikasten duzun idazlea da, bertakoa, eta gertukoa sentitzen duzun idazlea iruditzen zait.

Beste erreferenterik?

Irakurtzen hasi nintzenean, gizonetzkoen poesia baino ez nuen irakurtzen, baina Gloria Fuertes deskubritu nuenean, mundu berri bat agertu zitzaidan parez parez poesian. Hortik aurrera, literatura testu asko irakurri ditut; hala ere, erreferentziak ez ditut soilik literaturan topatu, bestelako kultur testuak eta bereziki arte plastikoari loturikoak izan baititut erreferente. Garrantzitsua iruditzen zait liburu batean erakusten diren erreferentzietan arreta jartzea, horiek erakutsiko dutelako zertaz elikatu zaren sortu ahal izateko, zeinen lengoaiari eman diozun zilegitasuna. Bestelako erreferentzia batzuk bilatu behar dira, ez bakarrik betiko erreferentzia kanoniko horiek. Sortzaile berriok dakarkigunak datorrenari eragingo dio. Kontsumitzen ditugun kultur testuetatik garatzen eta eraikitzen dugu gure nortasuna eta kontzientzia, eta hauek ideia kapazitistak, arrazistak, klasistak edo genero-rol eraiki eta ezarriak neutralizatzen eta helarazten badituzte, hauek naturalizat identifikatuko ditugu.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Azken urteetan sorturiko poemak 'Zeldak. Gorputz honetatik' liburuan bildu, eta Balea Zuria argitaletxeagaz publikatu ditu Elena Olave durangar gazteak. Sortzaile berriei ahotsa emateko helburua du argitaletxe honek. Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak idatzi du hitzaurrea.

Zelako poesiak batu dituzu liburuan?

Liburu lau ataletan dago antolatuta: hiru zeldak dira, eta laugarrena espazio zabala da. Zeldak Louise Bourgeois artistaren obran oinarritzen dira. Atal bakoitzak gai bat jorratzen du, ez berdina beharbada, baina hari bat mantentzen dute. Lehenengo zeldako poesiak nahiko existentzialistak dira; bigarrenekoak gehiago dira giza-harremanei buruzkoak, eta hirugarrenak kontzientziagaz du lotura; laugarren blokeak, ostera, gorputzagaz du harreman handiagoa. Azken bloke hori eta izenburuko bigarren zatia geroago sartzea erabaki nuen. Urte

intentsoa izan da aurtengoa, Uxue Alberdiren eta Eider Rodriguezen bisita jaso genuen fakultatean, besteak beste, *Gorputzaren lekukotasuna: bertsolaritza, literatura eta artea* mahai-inguruan.

'Gorputzagaz irakurtzeko poesiak' zirela zenioen beste elkarrizketa batean.

Kuriosoa iruditu zitzaidan egitura hauek erabiltzea. Bourgeois en zeldetan, gorputzaren inplikazio aktibo bat behar zenuelako barneratzeko. Zentzumenagaz irakurri

“**Ilusio handia egin dit Sarrionandiak hitzaurrea idatzi izanak; gertukoa sentitzen den idazlea dela uste dut**”

behar zenuen espazio hura. Begiekin irakurri, baina gorputzagaz interpretatu.

Zergatik Bourgeoise?

Guggenheimen bere erakusketa bat ikusi nuen, orain urte batzuk. Iaz, arte garaikideari buruzko lan bat egin nuen; osasun mentalaren, generoaren eta sorkuntzaren inguruan egin nuen. Trauma eta psikoanaliagaz oso lotuta egon da artista honen ibilbidea, eta horregatik erabaki nuen bere obra lantzea. Garrantzitsua da sorkuntzaren munduan, batez ere, gai hauen inguruan aritzea; izan ere, XIX. mendetik aurrera osasun mental normatibotik at edo naturalizat identifikatzen ez zen egoera mentala pairatzen zuten gizonezko zizuri sortzaileak jenoaren kategoria artifizialagaz lotu baitira. Aldiz, ez da modu berdinean berba egin osasun mentalaren, sorkuntzaren eta emakumea*-ren arteko loturaz.

Aspalditik idazten duzu?

Idatzi bai, baina ez dut neure burua

idazletzat inoiz hartu. Graduak asko idaztera bultzatu nau, besteen lanak aztertuz; kritikak, hausnarketak...

Gaztea zarela publikatu duzu liburu.

Nik uste dut publikatzeko eta sorkuntza lanak gizarteari helarazteko aukera falta bat dagoela. Sorginolako *Berbaz* aldizkarian, adibidez, ikusten da gazteok badugula idazteko eta hausnartzeko joera, baditugu erreferentziak, irakurtzen dugulako, baina kontua da

“**Sorginolako 'Berbaz' aldizkarian, adibidez, ikusten da gazteok badugula idazteko eta hausnartzeko joera**”

No-Land eta Christian Dozzler izango dira asteburu honetako protagonistak Jazz eta Blues jaialdian

Dozzler musikari austriarrak lau hamarkada baino gehiago daramatza blues munduan; azaroaren 16an izango da bere kontzertua, Ateneon; Tonky de la Peña, Ricky Avila eta Adrian de la Peña musikariek lagunduko diote oholztan

MUSIKA • A.M.

Elorrio jazz eta blues doinu bustiko da asteburuan, udazkeno lez. Mocker's hirukote durangarrak eman zion hasiera jaialdiari, atzo. Gaurkoan, oster, No-Land hirukotearen txanda izango da. Jazza ardatz hartuta, free jazzera, musika klasikora eta flamenko doinuetara daramate entzulea euren zuzenekoetan. Jorge Fernandezek, Juanma Dominguezek eta Aitor Bravok osatzen dute hirukotea.

Christian Dozzler austriarra izango da zapatuko protagonista. Dozzlerrek 40 urtetik gora daramatza blues munduan; AEBetan bizi da, eta urteotan zazpi disko kaleratu ditu. Beste 30 diskotan ere parte hartu du. 22:30ean hasiko dira kontzertu biak.

Elorriora zabalduz

Jaialdia Elorrio osora zabaldu guran, Portalekuan eta Gaztetxean ere egingo dira kontzertuak. Horrela, domekan, hilak 17, Jon Gurrutxagak eta Urbil Artolak kontzertua

eskainiko dute. 20:00etan hasiko da emanaldia, Portalekuan. Doakoa izango da.

Bestalde, Mikel Makalak eta Jimmy Bidaurretak azaroaren 21ean eskainiko dute emanaldia,

Ateneon. Doinu latinoekin jazz eta funka nahasten dituzte, besteak beste. "Erritmo latindarrekin maitemindutako alkimistak dira, eta sorkuntza esperimendu bizigarri diren abestietan iraganeko musika

egiten dute gaurko belarriekin, edo, gurago bada, gaurko musika egiten dute iraganeko belarriekin", azaldu dute antolatzaileek. 21:30ean hasiko da kontzertua, eta sarrera 5 eurokoa izango da.



Christian Dozzler.

Zamorako espetxean preso egondako apaizak omenduko dituzte Irudienean

Abenduaren 7an, goizean, 'Apaiz-kartzela' dokumentala emango dute Irudienean



Irudienea, iaz.

ZINEMAGINTZA • A.M.

1968an kartzela bat zabaldu zuten Zamoran, frankismoari aurre egin zioten abadeak bertan sartzeko asmoz. Guztira, 53 abade eduki zituzten han. Kartzela hartan preso egondako abadeak omentzeko asmoagaz egin dute *Apaiz-kartzela* dokumentala. Abenduaren 7an proiektatuko dute dokumentala, 12:30ean, Irudienean. Dokumentalaren azken bertsioa erakutsi ez arren, ekitaldi berezia izango da, izan ere, Xabier Amurizak, Josu Nabereanek eta Juan Mari Zulaikak parte hartuko dute bertan, Oier Aranzabalegaz eta Ritxi Lizartzagaz batera; Aranzabal eta Lizartza dokumentalaren zuzendariak dira, David Parallesegaz batera.

Gai librea

Josune Aranguren Zatika
Filosofoa



Jendajeak

Ultraeskuindarren gorakadak eta udalaren zurrumurruen aurkako ekimenak behar berrari erantzuten diote? Jendajeak ere kultur estereotipoak dira. Erlojua soinean duela alanbran lixiba zabaltzen duen urlia makettoa, inori klaskada entzunazteko leiho bazterrean arrautzak irabiatzen dituen sandia kanpotarra eta bertokoena baino negar zaratatsuagoa duen nonbaiteko berendia. Trenak ekarritakoak. Ijitoen gurditik eroritakoak. Ez gutarrak. Hezurbakoak, belarrimotzak. Jende-modua.

Etxean jaso ditugun estereotipo nagusiak jatorrian eta etniam sustrai hartuta daude. Geure nortasuna indartu eta ondorioz, inor baztertu. Taldea garelara adierazi nahi eta bide batez, gure gizartean ez daudela argi utzi. Berdinak garelara aldarrikatu eta nahitaez, desberdinak direla azpimarratu. Beste talde batekoak. Jendaje taldekoak.

Kultura desberdinak erkatzen direnean parametro unibertsal batzuen bitartez egiten da. Hofstedek "burmuinaren softwarea" deitzen dio modu adierazkorrean kulturak erkatzeko bost dimentsioen formulazioari. Sailkatzeko lana errazteko, zein kutxatiltan sartu erabakitzen laguntzen diguten parametroak dira.

Kontua da taldekatze horiek gizartearen mugimenduak ere eragiten dituztela. Identitate soziala eta talde fusioak kezkatzen gaituen garaian, euskaldun eta euskal herritar taldeei batzen bagatzaizkie, horietan identitatea ematen diotena indartzeko izan dadila. Talde psikologia praktikoa dakiguke nolakoak garen gogoeta egiteko, nolakoak ez garen baino hobe.

*<http://josunearanguren.blogspot.com/>


clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o **BASA**
Miren Amuriza (Elkar)

2^o **ETXEAK ETA HILOBIAK**
Bernardo Atxaga (Pamiela)

3^o **VERTZINGETORIXEN ALABA**
(ASTERIX 38)
Ferri & Conrad (Salvat)



Gorka Eguen
Artaloitia
Ironman erdien munduko
txapelketan ariko da
Durango | 1979

Sorpresa handia! Ez nengilaren horren bila. 40 urtegar horrelako zerbait lortzea itzela izan zen. Esan dudana moduan, sekula ere ez naiz kiroltan nabarmendu eta, orain, sailkapena neure merituz lortu dut, ez da inork oparitutakoa izan. Aste biaz ez tizan egon nintzen. Azkenean, lorpenaren atzean ordu askotako entrenamenduak daude.

Beteranoa zarela heldu zaizu kirol arrakasta.

40 urtegar nire kirol ibilbideko unerik onenean nago. Inoiz ere ez naiz orain besteko konstantea izan kirolean. Gazteagotan, mugikorreko agendan jaien datak nituen apuntatuta. Orain, lasterketen hitzorduekin beteta dago.

Munduko txapelketa 2020ko azaroan da, Zeelanda Berrian. Hemen-dik aurrerako prestaketa hitzordu horretara zuzenduko duzu?

Bai, orain arte egin dudana askorik aldatu barik, baina bai. Azkenean, norberak handitzen du bere exigentzia maila.

Noiz arte jarraitu gura zenuke Ironmanak egiten?

70 urtekoak bizikletan edo korrika ikusten ditudanean, pentsatzen dut: "Neuk ere horrela ibili gura dut euren adinean". Begira, Ironmana egitea erabaki nuenean, ardua handiagoko lanpostu batean hasi nintzen. Biak batera etorri ziren. Nire kasuan, kirola eta bizitza modu paraleloan joan dira. Kirol arloan motibatuta eta gustura nabilenean, arlo pertsonalean ere berdin sentitzen naiz. Asteburu batean lasterketa ona irtetzen bazait, beste indar bategar noa lanera.

“40 urtegar nire kirol ibilbideko unerik onenean nago; inoiz ere ez naiz orain besteko konstantea izan kirolean”

Indarpak klubeko Gorka Eguen triatleta durangarrak erdi distantziako Ironmanen 2020ko munduko txapelketara sailkatzea lortu du

IRONMANA • JOSEBA DERTEANO

Gorka Eguenek bere Ironmanen ibilbideko argazki eta bideo dezente ditu gordeta mugikorrean, baina eurentariko gutxitan agertzen da bera korrika, bizikletan edo podiumean. Energia eta bizipoza ematen dizkioten irudiak bestelakoak dira: Lanzaroteko Ironmera joan zenean taldekide, senide eta lagunak grabatu zioten animo bideoa; hainbat lasterketatan gurasoekin ageri den argazkiak; jarraitzaile sutsu duen 15 urteko lobak bidaltzen dizkion mezuak... Erroikei aurre egiteko erabiltzen duen gasolina dira.

Betidanik izan zara kirolaria?

Sekula ere ez naiz nabarmendu izan kirolean. Gazteagotan futboleant, saskibaloian eta atletismoan ibili nintzen, baina jarraikortasun handirik barik, sekula ere ez lar serio. Lehenago, lodiago nengoen eta ez nuen gaitasun berezirik kirolerako.

Triatloien eta Ironmanen munduan sartu zinen arte.

30 urtetik gora nituela, kirol batean zentratu nintzen: korrika. Triatloiak ikustera ere joaten nintzen noizean behin. Banenbilen korrika, bizikletan ere bai apur bat... eta igerian hasi nintzen.

Orain hiru urte egin nuen debuta, Llaneseko triatloian.

Zelan joan zen?

Oso ondo. Lasterketa berezia izan zen, hainbat konturengatik. Alde batetik, nire urteguna izan zen. Gainera, gurasoak nigaz joan ziren eta, sorpresaz, arreba ere bertan agertu zen niri animoak emateko. Oso babestuta sentitu nintzen. Horiek dira sentipenik politenak, zure poza besteena ere badenean. Gurasoek asko laguntzen didate eta esker oneko nago. 15 urteko lobak ere asko animatzen nau. Behin Ironman batean korrika nengilela, bizikletan errepidera sartu, nire ondoan ipini eta ni animatzen hasi zen. Beste behin, Lanzaroteko Ironmanaren bezperan, hotelean nengoela, sofan esertzeko eskatu eta bideo bat erakutsi zidaten. Nire senide eta lagunak ni animatzen agertzen ziren bideoan. Apur bat nerbiooso nengoen lasterketa zela eta, eta bideo horrek indarra eman zidan.

Hasieran zeure kontura ibiltzen zinen. Zelan batu zinen Indarpak taldera?

Triatloien munduak duen gauza on bat da lasterketetara joan eta jendea ezagutzen duzula. Apurka Indarpak-eko jendea ezagutzen

“

Hobetu beharreko alderdia igeriketa da; ohitura zahar eta txarrak alboratzea kosta egiten da”

—

hasi nintzen eta taldera batzera animatu ninduten.

Talde batean aritzeak lagundu dizu kirol maila hobetzen?

Bai, jakina. Baina Indarpaken dagoen talde ikuspegia nabarmendu gura nuke, batez ere. Elkarrilaguntzen diogu, lasterketetara elkarregaz joan eta leku berriak ezagutzen ditugu... Azken batean, guretzat aisialdia da, ez gara horretatik biziko eta horrelako giroa izateari garrantzi handia ematen diot. **Hiru diziplinetatik, zein da zure indargunea eta zein ahulgunea?**

Indargunea bizikleta da, eta hobetu beharrekoa, igeriketa. Teknikoki, ohitura zahar eta txarrak alboratzea kosta egiten da. Bestetik, diesela naiz; ez dut esprintak egiteko ahalmen edo borondate hori.

Hiru diziplina diferente entrenatu beharra gogorra da?

Nik neuk nahiago horrela, nahiago dut diziplina desberdinak entrena-tzea. Astea ez zait hain monotonoa egiten. Gorputzari eta buruari sentsazio gehiago ematen dizkiezu.

Urri hasieran, erdi distantziako Ironmanen munduko txapelketara sailkatu zinen Portugalen. Sorpresa izan zen?



Gorka Eguen Portugalgo Ironmanean korrika.

Silvia Triguerosen inguruko 'Tor' dokumentala eskainiko dute Elorrioko mendi astean

Iturri kultur etxean egongo da ikusgai, martitzenean



Silvia Trigueros Tor des Geants proban.

MENDIA • J.D.

Elorrioko Erdella Mendizale Taldeak Mendi Astea antolatu du datorren asterako. Egunero ikusentzunezko bat emango dute eta protagonistak bertan izango dira azalpenak ematen. Emankizun guztiak 19:30ean hasiko dira.

Astelehenean, familiagaz bidaiatzen 25 urte daramatzen Mikel Bringasek bere tokirik kutunenak erakutsiko ditu. Martitzenean, Silvia Trigueros mendi korrikalari abadiñarrari buruzko *Tor* dokumentala eskainiko dute. Iñaki Urresti eta Mikel Urresti atxondarrik dira zuzendariak.

Eguaztenean, Viking Open Canyon taldekoek Norvegiako trokarteetan zabalduko bideak azalduko dituzte. Eguenean, Unai Llantadak Antartikako abenturak kontatuko ditu. Eta barikuan, Javi Valerok eta Ihintza Elsenarek eskalada kontuak izango dituzte berbagai. Viking Open Canyoneko emanaldia Gaztetxean izango da; gainerako denak Iturri kultur etxean eskainiko dituzte.

Olazar txapelketako bigarren final-laurdenak jokatu dituzte Zaldibarren

PILOTA • J.D.

Olazar txapelketak ez du atse-denik hartzen, eta hurrengo egunean final-laurdenetako partidu bi jokatu dituzte Zaldibarko pilotalekuan. Lau t'erdian Iker Larrazabal arabarrak eta Jorge Fernandez errioxarrak neurtuko dituzte indarrak. Aurtent, Mallabiko Biharko Izarrak txapelketan lau t'erdiko txapela jantzi zuen Larrazabal izango da faborito, baina Fernandezek ere baditu bere armak.

Binakako partiduan, Oskar Lerenak eta Endika Uriondok Xabier Zubiriaren eta Andoni Gaskueren kontra jokatu dute. Adituek partidu parekatua eta borrokatua itxaroten dute. Irabazleak finalerdietarako sailkatuko dira.

Jokaldia

Iñaki
Iza Zarazua
Pilotari ohia



Epaillei bostekoa

Ikuskizun zoragarria dugu esku pilota. Kirol batek erakargarria izateko behar dituen ezaugarri guztiak batzen ditu: abiadura, lehia, estetika erakargarria, zaleen zein lehiakideen arteko errespetua, pilotalekuan sortzen den giro berezi hori... Horrekin guztiarekin betetzen dira astebururo gure frontoiak, pilotazaleen eta pilotarien artean "familia" bat osatzen dutelarik.

Horrela, partidu bat bukatzerakoan pilotariak elkar agurtzen dute bostekoa emanez. Zaleengana ere zuzentzen dira ondoren, norgehiagokan zehar emandako babes eta animoak eskertzeko, aurrez aurre jarri eta txaloak joz. Era berean, pilotazaleek ere pilotariak egindako ahalegina txalo zaparrada batekin eskertzen dute protagonista nagusiak aldagelara jo aurretik.

Baina esker oneko erritu horretan hutsune bat sentitzen dut nik; epailearen lana eskertzea. Bada, zergatik pilotariak ez dituzte epaileak agurtzen pilota partida bukatzen denean, azken hauek ere ikuskizunaren parte baldin badira? Azken hiletan hainbat pertsonari, pilotari batzuk tarteko, egin diet galdera horixe eta, gehienetan, epaileak "partidua hasi aurretik agurtzen dituztelako" dela erantzun izan didate. Bai, baina, era berean, pilotariak bostekoa ematen diote elkarri, lehenengo sakea egin aurretik zein azkeneko pilotakada jo ondoren, buruz buruko norgehiagoka jokatzeko dutenean bederen.

Nire uste apalean, ez legoke sobera aurkariarengana zuzentzen diren bezala, kantxako egonaldia segundo gutxi batzuk luzatzearen truke, epailei ere, esker onez, bostekoa ematea.

Asteko kirolaria

"Asko ikasi behar dut oraindino; gazteetatik nagusietara asko aldatzen da kontua"

Gazteetatik Eiser-Hirumet taldera igo dute Markel Rodriguez ziklista abadiñarra

Urteetan harrobiko taldeetan zaildu eta gero, Markel Rodriguezi heldu zaio nagusietan bere balioa erakusteko sasoia. Presarik barik, ikustea eta ikastea izango dira estreinako denboraldiko helburuak.

Zer itxaroten dute zuek?

Lehenengo urtea denez, lasai egoteko esan didate. Asko ikasi behar dut oraindino. Gazteetatik nagusietara asko aldatzen da kontua. Planteamendu ezberdinak daude. **Zer esan gura duzu planteamendu ezberdinak daudela diozunean?**

Taldea eta taldeko lana asko baloratzen da maila hauetan. Gazteetan, lasterketak bestelakoak izaten dira. Kilometroak egin ahala, apur-

ka-apurka, betiko txirrindulariak geratzen dira aurrean. Zelanbait esanda, lasterketak prebisibleagoak dira. Gutxi gorabehera, badakizu nortzuk egongo diren aurrean eta nortzuen artean erabakiko den garaipena. Nagusietan diferentea da. Etapak irabazteko aukera izateko, aurretik taldeko lan handia egin beharra dago.

Erritmoan ere gorakada nabarmena egongo dela imajinatzen du.

Lasterketei traza hartu behar diezu, zelakoak izan daitezkeen asmatu behar duzu. Esaterako, esperientzia eta jakituria handiko txirrindulariak ikusi, Illart Zuazubiskar esaterako, eta oraindino zenbat dudan ikasteko ohartzen naiz.

Joan zen asteburuan urteko lehenengo kontzentrazioa egin duzue Urkiolan. Zelan joan da?

Oso ondo. Egingo ditugun kontzentrazio bietatik lehenengoa izan da. Elkar ezagutzea eta hartu-emanak sendotzea dira helburuak. Bazkariak eta afariak geuk egin ditugu, hainbat ekintzatan parte hartu dugu... Ordu asko eman ditugu elkarregaz. Batak bestea ezagutzeko modu egokia izan da.

Aurpegi asko berriak izango dira zuretzat, ezta?

Bai. Gazteetatik igo diren txirrindulariak ezagutzen ditut, baina ez nuen beste inor ezagutzen. Hau da, badakit nortzuk



MARKEL RODRIGUEZ HOLGUIN

Abadiño, 2001

ziren, baina ez nuen hartu-emanik eurekin.

Zein izango da zure egutegia?

Urtero lez, Espainiako Kopa lehiatuko dut, besteak beste. Abenduan Sevillan, urtarrilean Mallorcan eta otsailean Madrilen ibiliko naiz.

Aurreko denboraldian Espainiako Kopa irabazi zenuen, baina gazte mailan.

Hau diferentea izango da! Ez du zerikusirik. Esperientzia hartzea da helburua.



**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA


688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitetz berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak



Botikak

BARIKUA, 15 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 16 - 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - **ELORRIO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 17 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 18 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 19 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 20 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 21 - 09:00-09:00

CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - Durango

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak



50 urte itsasoaz disfrutatzen, bare dagoenean eta are gehiago olatuez. Segi horrela! Zorionak, **Aitor!**



Zorixonak, pirru, zure bigarren urtebetetziak! Patxo goxo bat etxeko danan partez.



Zorixonak, **Lorea**, zure bigarren urtebetetziak. Segi hain bizkor eta alaia izeten. Mosu handi bat zeure familixien partez!



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Garazi** eta **Aiur (783. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuean jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9



Izeko-lobak, **Leirek** eta **Izeik**, aste honetan zarapean lo ein dabe eta begira ixartzerakoan... Zorionak! Bargundiatik.



Atzo, hilaren 14an, eguzkiari 9. bira eman zenion. Gure inguruan biraka jarrai dezazun: Ekhi, ama eta aita. Eskerrik asko eta zorionak. Maite zaitugu, **Aiur**.



Zorionak gure etxeko txikitxuei! Azaroaren 11n **Lukak** 3 urte egin zituen.

Eguraldia

ZAPATUA 7° / 4°



DOMEKA 10° / 6°



ASTELEHENA 11° / 5°



MARTITZENA 9° / 5°



EGUAZTENA 13° / 7°



EGUENA 13° / 6°



“Film laburra epaimahaiari eta publikoari gustatzea izugarria da”

Maddi Loiti Amparoren paperean sartu da eta hainbat gomendio eman dizkio Ibone Ajuriari 'Laif Koutxin' film laburrean. Publikoak eta epaimahaiak, biek eskertu diete Arriolak antolatutako '24 ordu digitalean' egindako lana

Maddi Loiti Mendizabal (Elorrio, 1999) Ibone Ajuria Fondado (Elorrio, 1999)
• Atabalak taldekoak kideak

Berba bitan

Pelikula bat:

Maddi: Hego basatiko piztiak
Ibone: Trash, ladrones de esperanza

Aktore bat:

Maddi: Leonardo Di Caprio
Tarantinoren azken pelikulan
Ibone: Meryl Streep

Abesti bat:

Maddi: The House of Rising Sun
Ibone: Zorionaren Lobbya

Bizitzarako aholku bat:

Maddi: Ipin dena dudana, modatik hasi eta sentitzen duzuna arte
Ibone: Jende onagaz inguratu

Zaletasun bat:

Maddi: sortzea eta animalia artean ibiltzea
Ibone: zinera joatea

Animalia bat:

Maddi: Nire txakurra, Kea
Ibone: Txakurra

Kafea ala infusioa:

Biak: kafea

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Atabalak taldearen 'Laif Koutxin' lanak irabazi du '24 Ordu Digitalean' film laburren lehiaketa, aurten. 'Ausardia' izan zuten gaia, 'Hego haizerik gabe zoratu' esaldia, eta erabili beharreko objektua 'sarrera'. Malen De la Fuentek, Miren Letonak, Maider Lopezek, Amaia Cobok, Maddi Loitik eta Ibone Ajuriak publikoaren eta epaimahaiaren saria lortu zuten.

'Laif Koutxin'-ek sari bikoitza lortu du. Zelako sentsazioa utzi dizue horrek?

Maddi: Oso emozionatuta gaude! Epaimahaiari eta publikoari gustatzea izugarria da. Askotan gertatzen da publikoari gustatzea eta epaimahaiak beste ikuspuntu bat izatea.

Ibone: Ikusleek ulertu dituzte elorriarrei buruzko hainbat aipu, eta gustatu zaie. Horixe zen helburua, publikoari gustatzea.

Zelan sortu zitzaizuen ideia?

Maddi: Oso lasai ibili ginen! Miren sofan etzanda zegoen, eta ni Maleni tatuaje bat egiten. Gainerakoak etortze-koak ziren, eta ordu bi pasatuta, esan genuen: 'Zerbait pentsatu beharko dugu, ezta?'. Norbaitek *life coaching* bat egitea proposatu zuen eta perfektua iruditu zitzaigun.

Ibone: Ideia lotuta,

garatzen hasi ginen. Eszena bakoitza idatzi eta lehenengo eszena grabatzen hasi ginen, Bikale kanpoan, 02:00etan. Etxe barruko eszenak grabatu genituen gero, eta ordubetetxo bat lo egin eta gero, beste kaleko eszenak.

Aurretik ez zenuten ezer pentsatuta...

Ibone: Barregarria izango zen zerbait egin gura genuen. Barregarri geratu arren ondo pasatu gura genuen, eta ikusleek ere bai.

Eta ondo pasatu zenuten...

Ibone: 24 ordu barrez pasatu genituen. Ez zen drama momenturik egon. Oso gustura ibili ginen.

Maddi: Oso dinamikoa

izan zen dena eta elkarlanean aritu ginen, muntaian ere bai.

Modan dauden coaching, influencer edo youtuberren parodia egin gura izan duzue?

Maddi: Ez dugu horretan larregi pentsatu. Baina iruditzen zait antzerkia egiten dela: "hau egin behar duzu", "izan positiboa" la-koak esaten dituzte, eta dena ez da horretara mugatzen. Ez da erreala. Gainera, askotan, esandakoa ez dute euren bizitzan aplikatzen. Hori islatzen saiatu gara.

Ibone: Motibatze-koak diren ingelesezko benetako esaldiak erabili ditugu, askok asmatutakoak direla pentsatu duten arren.

Ikusten duzue zuen burua coaching lez?

Maddi: Ez. Youtuber igual... Amparo lez (barrez)

Ibone: Inondik inora!

Lehenengoz aurkeztu zarete?

Maddi: Zazpigarrenez. Lehenengoz 12 urte-gaz aurkeztu ginen eta aipamen berezia jaso genuen, *Diruak dakarrena* lanagatik. Kuadrillan 22 gara eta txandaka ibili gara.

Ibone: Gazteak izan arren beterranoak gara.

Antzerkian ibiliak zarete?

Ibone: Umetatik ibili naiz, baina 24 ordu digitalean beste kontu bat da, lagunartekoa. Edonor animatuko nuke. Begira Maddi!

Maddi: Ez. Familian, etxean, egin dut antzerkia. Baina hortik kanpora, ez. Oso lotsatia naiz. Oholtzara igo ginenean saria hartzera, bildur eszenikoa sortu zitzaidan.



Lau-hortza

Ainhoa Olaso Sopelana Ikaslea



“Muga” hitza gugana itzuli denekoa

Muga: Zerbait amaitzen den tokia edo unea.

Bereizten gaituen muga: zu ama eta ni alaba. Eta *betiko lotzen gaituena:* ni alaba eta zu ama. Biak eten beharrekoak.

Urtemuga ospakizunen testuinguruan: “gazte bizitza” eta “orain bizitzako beste momentu batean nago” kontzeptuen arteko mugan, arantza zorrotzak irensten ditugunekoak.

Lanean: “lankideen aldean, zuk ondo erantzun diozu zure lanari, kontratu mugagabea” hotzak bizkarrezurra bihurritu dizu, nagusia esaldiaren mugaraino heldu aurretik.

“La trinchera infinita”, Andaluzian. Hego Euskal Herrian, laburrak izan ziren ezkutaldiak, muga gertu dagoelako.

Barraskilo operazioa. Bi estatu. Behobia, muga. Baiona, muga. Giro-na, muga.

Hola, buenos días —euskarazko erantzuna espero duzun lekuan gaztelaniaz erantzuna jasotzean espektatiba linguistikoen zerumuga zapuzten da.

Egunak 24 ordu. “Noiz” bat dugu “zertarako” bakoitzerako. Intimitatearen mugak gurutzatu ditugu gaueko hamaiketarik aurrerako telefono bidezko mezuekin.

Arrazoiaren eta emozioen arteko muga. “Zergatik ez dira gauzak errazagoak?” Konplikazioetan ez erortzeko harreman sareen mugak... Anarik orduan, Muga Kanta bat: *urak daramana, ez dakar beti bueltan.*

Zerumuga... Eta itsasoa... Itsasoa muga moduan ulertuko dute haiek? Izen bat behar luke sentsazio horrek.

Justiziak ere hainbat muga. Oihan, Jokin, Jon Ander, Julen, Adur, Aratz, Iñaki eta Ainara. Altsasurenak.

Eta abendua eta urtarrila, hain gertu eta hain urrun. 2020. Urtarrilean greba, lan, pentsio eta bizitza duinak jomugan.



DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, Kabilduoste zona eksklusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitetz!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.

www.sukia.com